

HIZKUNTZA, KULTURA ETA EMIGRAZIOA EUSKAL HERRIAN ETA EUROAPAN

Félix Rodrigo Mora

“Euskera eta demografía Jardunaldia”-n

aurkeztutako txostena

Durango, Euskal Herria, 2019-11-9

Emigrazioaz oraindik ere ezin da eztabaidatu edo askatasunez hitz egin, hura tabu da. Eratutako botereari/ei zer zaion intereseko esatea, huraxe soilik esan daiteke, zeren hala jokatzeari ezinbestekoa eta erabakigarria zaio gaur egungo sistemari. Haua da, hala jokatzeari oinarri-oinarrizkoa da eskulan merkea izateko, eta bai Europako biztanleak eta langileak ordeztzeko ere, oro har ez baitira otzanak eta eramanerrazegiak, zenbait motibo kultural direla-eta; hortaz, europarrak ordeztu egin nahi dira, kanpotik langile esaneko eta otzanagoak¹. ekarriz. Nire ustez, jokabide egokia hauxe da: batetik, debeku hura apurtzea, eta, bestetik, herritarrei analisiak eta proposamenak eskaintzea. Hala egin dut argitaratu berri dudana liburu honetan: **“Erótica creadora de vida. Propuestas ante la crisis demográfica”**; eta aurrerantzean ere antzekorik egitekotan naiz. Bada garaia ozen eta argi eta garbi hitz egiteko. Gainean izan ditzakegu bazterketak, zentsura, kalumniak eta hedabideetako lintxamenduak; baina ezin gara kikildu eta beldurtu, eta ez dizkigute ahoak itxiaraziko.

Adierazpen-askatasuna erabat zaindu eta babestu beharrekoa da, eta ahalegindu egin behar dugu errespetatu dadin. Berbagai dugunaren antzeko asuntuetan, totalitarioek ukatu egiten dute askatasun hura. Esate baterako, 2019. urtearen erdialde-inguruan, Bizkaiko patronalak honako hau exijitu zuen: 30 urtez 300.000 etorkin onar daitezela (familiak elkartuta, 500.000). Bada, hori aldeztu eta txalotzen dutenak ere adierazpen-askatasunaren aurka dira. Hilabete batzuk geroago, Espainiako zenbait erakundek eta patronalek eskatu dute kopuru hori bost bider handiagoa izan dadila. Hau da, 30 urtez 2,5 milioi urteko, 2020tik 2050erako aldirian; guztira 75 milioi, 47 milioiko herrialde baten. Horrek hauxe esan gura du; Iberiako herrialde guztiak suntsitu

¹ Nik arazo horretaz egiten dudana interpretazioa **“¿Por qué están exterminando a los pueblos europeos?”** izeneko bideoan dago, zeina YouTube-ko neure kanalean baitago editatua.

egingo direla, etnia, kultura zein hizkuntzei dagokienez, eta marjinatutako eta pertsegitutakoak izango direla, euren lurraldeetan. Horri genozidio deritzo.

Zer behar dugu? Gai korapilatsu horiei buruzko eztabaida libre, plural eta globala abiatu ahal izateko, eta bertan azaldu ahal daitezen jarrera guztiak, eta ez bakarrik natalitatearen aurkakoenak eta neo-negreroenak. Euskerari dagokionez —aspektu berriak gehituz— honako honi jarraituko diot: Javier Goitiaren **“El ADN del Euskera (en 1500 partículas)”** izeneko liburuaren nire hitzaurrean azaldutako argudiaketari, zeinaren titulua baita **“Lengua y pueblo. Pasado y Futuro”**, eta, halaber, **“Proposamen pertsonala Euskal Herrirako estrategiaz eta egintza-planaz/Propuesta personal de estrategia y plan de acción para Euskal Herria”** deklarazio neuk egindakoa. Eta zelan eta badakidan gai horiek larriak eta konplexuak direla; bada, abian den analisisan zein debatean ez dut azken hitza ipintzeko asmorik —inondik eta inora ere ez—, nire asmoa beste ekarpen bat egitea baino ez da-eta.

Europako herriak suntsitzeko prozesua geldiaraztea

Nik bat egiten dut kultura europarrarekin; izan ere, aldeztu egiten baitut ia erabat. Nik maite dut Europa, eta jaiera diot bere kulturari; hortaz, bere hizkuntza guztiei. Nik neure burua gaztelautzat daukat, eta unibertsalista, Europazale eta munduko hiritar kontsideratzen naiz, neure zutarrak eta jatorria kontserbatzearen alde eginez betiere, ezen ez akulturazioaren eta autogorrotoaren alde. Hainbat urtez, kezka larri ikusi izan dut eze, Europan eraturako botereek, kapitalismo transnazionalak eta estatu orok (espainiarra aitzindari dela) eginkizun bat burutzen dihardutela: kultura europarra suntsitu eta desegiten. Honezkero argi dago honako hau: kultura/kulturak (eruditua bezainbeste herrikoia) suntsitzeko asmoa dute, eta baita Kontinente Zaharreko hizkuntzak eta etnia europarrak ere; eta hori zenbait eratan agertzen da; esate baterako, zurien aurkako arrazismoa, botereak finantzatu eta zuzendua. Europar Batasuneko erakundeak hasi dira aplikatzen —era arautuan— erretra honetan jasotzen dena: *“txakurra akabatu ezker, amaitu da amorrua”*; beraz, borroka da ekinbide bakarra.

Kultura europarrak bi agerpen-era izan ditu: batetik, ikasia edo letraturia; eta, bestetik, herrikoia edo agrafoa. Lehen, ia guztiz zokoratu dute museotan. Bigarrena, gogor erreprimitzen dute; nirea gaztelauen herria da, eta ia erabat akulturalizatu dago; eta iparretik duen auzoko euskaldunen herria ere ez da egoera batere onean, eta konponbidean ez bada sartzen, akulturalizatu egingo da; beraz, suntsitu, hain zuzen ere hamarkada gutxi barru. Hondamendi horrek kontinente osoari eragingo lioke, eta bai mundu osoari ere; izan ere, euskaldunen herriak aparteko bizitasuna izan du, eta bai herritarrek eurek altxatutako kultura ere, ahoz espresatzen dena, halakoxea baita benetako jakintza, behar-beharrezko dena: mundu osoan sufritzen dugun krisi globalari aurre egiteko.

Kultura propioa galtzeak hizkuntza galtzea ere badakar; zeren hizkuntza eta kultura elkarri estuki lotuak dira; ez doa bakoitza bere aldetik. Kultura gabe, hizkuntza ez da komunikazio-zeinu eta -hots sistema bat baizik; era horretan ez du sortzen ez zaletasunik ez atxikimendurik, eta ezin dezake iraun globalizazioko kondizioetan.

Norbaiti honako hau kontatuko baneutso; “badira herri batzuk, zeintzuei, lehenik, ondorengoak izatea galarazi eta ezinezko egiten zaie; bigarrenik, euren lurraldeak kanpotiko jendetzekin betetzen dira, epe laburrean —kanpoko horiek ekarri badira ere engainua, gezurra eta bortxa erabiliaz—; eta, hirugarrenik, arazo horretaz hitz egitea debekatu egiten zaie. Bada, hark pentsatuko luke eze, Amazoniako herritxoren batez edo EBetako etnia indigenez edo Afrikako oihanen baten galdutako triburen batez dihardudala; alabaina, Europako jazoerez dihardut.

Europako natalitateak lurra jo du ia; izan ere, honezkero emakumeko 1,3 umetik behera baitago; natalitate horrekin giza-komunitateak ezin du iraun. Kopuru horretatik behera egon ezker, demografoek diotenez, suntsipena gertatzen da. Hegoaldeko euskaldunei dagokienez, etorkinen natalitatea kendu ezker, emakumeko 0,9 umetan egongo da, 2019. urtean, eta hori ikaratzekoa da. Badira datu “baikorragoak”, batez ere INE (Instituto Nacional de Estadística) delakoak faltsutzen dituenak, Madrilgo Gobernuak aginduta; baina berekin dute akatsa, ez dira “exaktoak”². Etorritako etorkinen natalitatea kontutan hartuta ere, nire iritziz ez da

² Hau da, datu demografikoei “ikutzak egitea” edo, beste barik, faltsutzea ohiko jokabidea da, eta aurrerantzean sarriago erabiliko da. Gobernu espainiarra eta bere terminal autonomikoak bertutetsu dira iruzurrezko “langintza” horretan. D. Bricker-en eta Ibbitson-en **“El planeta vacío”** liburuan, salaketa suabe eta legun bat egiten da mundu mailako “praktika” horri buruzkoa.

ailegatzin 1,3ra; eta hortik hara esplikatu daiteke “Euskal-español” patronalaren (eta bere eragile sozialen eta kulturalen, euskal progresismo politikoaren. Elizaren, GKEen, intelektualitate instituzionalaren, etab.) ahalegina: “behar diren” etorkinen kopurua ikaragarri handitzeko.

Erantzun erraza eta arrazoitu gabekoa hau da: “*Beno, ume nahikoa ez bada jaiotzen, etorkinak ekarri, eta arazoa konponduta*”. Baina, hori hain da erraza, hain “humanitarioa”, ezen badituen arazo batzuk.

Bat: beharbada 15-20 urte barru, munduan ez da izango herrialderik nondik hartu (kendu, lapurtu, harrapatu, ohostu, hondatu) eskulanik, zeren demografiaren hondamena mundu mailakoa baita. Urterik urte, gero eta herrialde gutxiagok dute eskulan sobranterik, baina gero eta gehiagok dute eskulan premiarik. Mundu osoan, oraindik Afrikan bakarrik dago eskulan sobrantea. Alabaina, demografikoki lurra jo duen Txinak Afrikatik 20 milioi langile hartuko ditu urteko, eta hori bost urte barru jazoko da. Europako neo-neogreeroek zenbat ekarri ahal izango dituzte gure lurraldeetara? Zeren Japoniak, EBek, Kanadak, Errusiak, Alemaniak eta Indiak-eta ere beharko dituzte Afrikako behargin beltzak.

Asuntu horretan, b suari erregaia botatzen diote. Eta suaz gain, dinamita ere ote darabilten!

“**Erótica creadora de vida**” izeneko nire liburuan, honako hau azaltzen dut: gaur egun, 2019. urtean, Espainiaren eskulan-hornitzaile Maroko, Errumania eta Txina dira, baina horiek demografikoki agorturik daude, eta ezin dute esportatu jende gehiago, ezpada kopuru txikietan. Aurkakoa gertatzen ari da, bada politika bat, euren jatorriko herrialdeetara itzul daitezela. 2014. urtean, gobernu marokorak adierazi zuen eze biztanleriaren aldetik kontsumiturik direla; alabaina, Espainian zentzugabekeria nagusi-eta, ez dute halakorik entzun nahi, eta jarraitu egiten dute euren ameskeria neo-negreoroetan. Neo-esklaboek harrapaketaiek, biztanleriz hondatu egin dituzte Maroko eta Errumania, eta honezkeri Saharaz hegoaldekoa bakarrik geratzen da. Baina, munduko alde horrek ba al du ahalmenik planeta osoa eskulanez hornitzeko? Bai, egin lezake hori, baina bakarrik 2035. urtera arte gutxi-gorabehera, ez luzaroago.

Eta gaurtik aitzina natalitate autoktonoa sustatu beharko da, salbu eta “gizakiak” hazteko etxaldeak eratzearen alde egin; zergatik ez egin hala oraingandik?

Espainiako ugazaben erakundeek, harrokeria eta agintekeria tarteko direla, gero eta etorkin gehiago eskatzen dituzte; eta argitara ematen dituzten prentsa-oharretan, sekula ez da ezer esaten bertako natalitate sustatzeaz. Aipatzekotan, zera esaten dute: ez dela soluzioa, eta berehala behar dituztela langileak, eta ezin dutela itxaron 20 urtez. Eta harrigarri bada ere, halakoak esaten dituztenek bideratu dute Iberiako demografiaren hondamendia, erabili duten erruki gabeko politikaren bitartez. Hartarako, honako hauek baliatuaz: 1) Haurdun geratzen diren emakumeak kaleratzeaz mehatxatu; 2) Mehatxu hori gorabehera haurdun geratu direnak abortatzera behartu, patronaleko ugazabaren aginduz derrigorrezko abortua ezarrita; 3) “Andrazkoa askatzeko aitzakipean”³ sexu heterosexuala deabrutu eta pertsegitu. Izan ere, gaur egun zelan eta gizakia bere kondizio naturaletik alboratu den, agian gogoratu beharrekoa da eze sexu gabe ez dagoela jaiotzarik. Erotismo heteroea galarazi eta pertsegitzen bada, ezin da konpondu arazo demografikoa. Eta nork dago hori? Irakurle burutsuak laster du aurkitu erantzun egiazkoa.

Munduko herri guztiek dute erreproduzitzeko —iraun eta izaten jarraitzeko— eskubidea. Eta ez besteak baino hobeak (ezta txarragoak) direlako, ezpada euren izaitean irauteko libertatea dagokielako. Jo daigun eze, pozik

Gorago aipatu dudan nire liburuan, kasu gehiago irakur daitezke. Mundu mailan zelan eta sorrarazi den konponbide zaileko egoera; bada, aterabide gisa aukeratu dira ezkutapena, faltsutzea eta engainua. Horretaz gain, lintxatu egiten dira, debate libre eta arduratsuaz gu bezala egia argitara ekartzekotan dabiltzanak. Izan ere, abian den genozidioak Europako herriei ez eze, planeta oroari ere eragiten die. Mundu mailako —neurri ikaragarrietako— hondamendi globalerantz goaz, hain zuzen ere sexu eta herotismo heterosexuala —anker, etengabe eta era askotan— pertsegitzeak dakarren galarazpeneko (jaiotzak ez izateko) politikaren ondorioz. Guzti horrek ekonomian ere badu eragina, zeina “*¿Qué acontecerá en la economía de escasez mundial de mano de obra?*” izeneko nire liburuan lantzen baitut.

³Gai horretaz —Estatuak “*pater familias*” eginkizuna betez, eta beste sistema patriarkal bat eraikiz— sistema matxista berriak eskaintzen dituen zenbait interpretazio makur eta demagogiko salatu egiten ditut “**Feminicidio, o autoconstrucción de la mujer**” liburuan, zeinaren egileetako bat naizen. Guzti horren atzean uste baino gauza gehiago dira; esate baterako, kontuan izatekoa da: el “**Manifiesto SCUM**” adierazpena, panfleto neonazia CIAk produzitutakoa; badira hamarkada batzuk gida gisa erabiltzen hasi zirenetik, hau justu ere “emakumearen askatasuna” aldarrikatzen dutenak. Manifestu horren bitartez, patriarkatu berri bat eraiki nahi da, eta baita era berriko beste erregimen faxista bat ere. Horretan dabiltzanak, andrazko zein gizonezko, ez badira apartatzen publikoki halako testu makur-zitaletik, faxistatzat hartu behar dira.

egon gaitzkeela “losino” zaldiaz (Burgoseko Losa ibarreko poni antzeko zalditxo gaztelaua), eta salbatu egin dugula desagertzetik, eta, berebat, ahuntz kataluniarra babestu egin dela genetikoki desagertzetik; ez al da, esate baterako, poztekoa euskaldunen herria (etnia denez) desagertzetik babestea? Herriak desagerraraztea arrazismorik makurrena da, eta horixe berori da zurien aurkako arrazismo boteretsuaren helburua, hau da, “zabor zuria” suntsitzea, bere lurraldeetan beste etnia batzuk, beste arraza batzuk, ezartzeko.

Munduko herri guzti-guztiek dute eskubidea etnia direnez irauteko. Eta hori hala dela esateko, ez da zertan sartu-nahastu geneei buruzko eztabaida korapilatsu-labanetan⁴. Baina argi dado eze, Bizkaiko patronalari kasu egin ezker, euskaldunen herriari —etnia denez— belaunaldi biko epea bakarrik geratzen zaiola, 50 urteko izatea. Europar Batasunak, espainiar patronal nagusiak, progresismoak, Madrilgo instituzioek eta Elizak —elkar hartuta— etorkinak ekartzeak zera eragingo du: euskaldun etnikoek gutxiengo izatea euren lurraldean, 20-30 urte barru. Dagoeneko hala dira Bilboko eta Gasteizko-eta zenbait auzunetan. Hamarkada gutxi batzuk barru, lurralde guztian % 30a baino ez dira izango. Baina, hori pentsa litekeen baino ohikoagoa da. Esan izan da japoniar bako Japoniarik izango dela, mende honen erdialderantz... Egia esanik, abituak gara gizakirik gabeko planeta “huts” baterantz, bat etorritik gorago aipatutako liburuaren tituluarekin.

Herritarren burujabetza politikoarekin bat etorritik ezker, lurralde bateko erabakiak (oro) hartzea bertan bizi den herriari dagokio; horretara, herritar gehienek hartu behar dituzte. Halatan, bada, euskaldunek nahiz gainontzeko herri europarrek badute eskubiderik euren geneak kontserbatzeko —geneok etorkizuna izateko—, eta genetikoki ez desagertzeko. Gizakien geneak dira haixek, arbasoengandik datozkienak oinordetzan, eta guk kontserbatu egiten ditugunak, arbasoenganako gure maitetasuna eta jaiera agertzearen. Arbasoengandik geneek iraun egin behar dute, eta, halaber, jatorriek eta abizenak. Zurien aurkako arrazistek —Bruselaren eta Madrilaren diruzko laguntza dutela— eta enpresa multinazional eskergak haxe diñoskue: zurien geneak perbertsoak eta mespretxagarriak dira (hortaz, ez du inportantziarik eurok desagertzeak, eta azken baten, ona da hala izan dadin); baina, gene afrikarrak ederrak eta itzelak dira. Baina, egia haxe da: planetako herri guztien geneak dira baliotsuak —neurri berdinean—, eta denek iraun behar dute. Geneek iraun egin behar dute; eta bai zaldi, ahuntz, oilo, behi, uso eta gai-ontzekoen arrazek ere. Orok iraun behar dute, salbuespenik gabe.

Geure begien aurrean ikusten ari gara: ordezkapen etnikoa Euskal Herrian. Orain dela hamarkada batzuk, Balkanetan hori egin zelarik, “garbiketa etnikoaz” hitz egin zen. Eta genozidioa izan zela esan zen, eta hori egia da. Ez da zilegi ordezkapen etnikoa, ezin da suntsitu etnia bat, bere lurraldean beste bat edo beste batzuk ezartzeko. Halakorik dagitenak, defendatzen dutenak edo zuzitzen edo justifikatzen dutenak, izatez, genozidak dira. Arrazistak. Faxistak.

Emigrazioaren eta onkeriaren apologistak irakurri ezker, harritu egiten da bat, ikusirik ez dutela egiten analisirik eta errealtatea ez dutela ezagutzen. Esate baterako, ez dute ulertzen honako hau: bertako jenderik ez bada, hori agertu egingo da botere-aparatuetaordezkapen etnikoan ere; izan ere, aparatu horiek (funtzionario-lanpostuak) —bertako jende aski ez dela-eta— etorkinek beteko dituzte. Hori honezkerok gertatzen da gudaoste espainiarrean; izan ere, bertako soldaduetarik % 40 etorkinak dira; batez ere, latinoamerikarrak eta Afrikako iparraldetikoak. Etorkinen jatorritik herrialdeetan (partikulari Afrikan⁵), kontuan izanez gero

⁴Pentsamenduaren polizia diotena diotelarik ere, eztabaida hori gauzatu beharrekoa da. Aurrez aurre dut Imanol Agirren **“Vínculos de la lengua vasca con las lenguas de todo el mundo/Euskereraren lokarriak ludi guztiko izkuntzakaz”**, bilduma batekoa, zeinak *“Lenguas y genes en el siglo XXI”* izeneko titulu esanguratsua baitu. **“Estamos hechos de lenguaje”** lanean, Carme Jiménez Huertasék tarte bat eskaintzen dio geneen eta hizkuntzen arteko erlazioa lantzeari, horretan L.L. Cavalli-Sforza genetistari jarraitzen diolarik; izan ere, egile horrek deskubritu baitzuen *“adierazle genetikoa bat datozela eremu linguistiko handiekin”*. Andre horrek zehaztuen interesgarriak egiten ditu gene eta hizkuntzen gainean; esate baterako, R1b halogrupoaz, zeina baita ohikoena euskaldunen artean; eta ildo horretan esaldi esanguratsu hau egiten du: *“ditugun pentsatzeko era, hitz egitekoa, sentitzea eta jardutea erabakiorrak dira prozesu kimikoetan eta aldatu egin dezakete ADNaren aktibitatea”*. Egia esan, guzti hori oraindik ez da ikertu asko, baina ezin da baztertu ohiko topikoen bitartez. Aipatu polizia garrantz diotenaren arabera, J.M. de Barandiaran bera ere surtara bota beharko litzateke; izan ere, **“Euskaldunak. La etnia vasca”** liburu interesgarria idatzi zuen. Milurtekoetan zehar euskarak bilakaera bat izan du, zehazki, euskaldunen ondoko zeren bilakaeraren laguntasunean: pasaia, mundu-ikuskerak, eta egitura fisikoa, biologikoa eta genetikoa. Guzti horrek osotasun bat eratzen du, batasun bat, zeina iraunarazi egin behar den; zeren parteetariko bat falta bada, osotasuna desantolatuko egin daiteke eta baliteke beste osagaiak ere desagertzea. Europan abian den genozidioaren defendatzaileei ez zaie interesatzen azken hori, eta arraza-garbiketa egiteko ordezkapen etnikoa gauzatzeko zoroki dihardutenez, latz egiten dute aurka. Euskal etnia desagertu daitekeela; baina, hala ere, euskerak iraun egingo duela, beste etnia batzuen hizkuntza gisa; uste hori burugabekeria hutsa da, eta gainera justifikatu egiten du abian den genozidioa; izan ere, baiezkoa ematen zaie abian diren ordezkapen etnikoaren eta arraza-garbiketaren prozesuei. Geroago emango ditugu argudioak erakusteko eze, etnia eta euskera elkarri lotuak direla.

arrazismoa oso latza eta era askotako dela; bada, pentsatu beharko da: guzti horren ondorioz, seguruenik, gutxiengo euskaldunaren, zuriaren eta oro har europarraren aurkako pertsekuzioa lehertuko dela; eta azkenean, harrigarri bada ere, gutxiengo horrek izango duen estatutua izango da huraxe, EBetako nazio indioek daukatena, nergargarria dena —indio horiek izan ziren euren lurren jabe pertsegitu zituzten arte, eta sarritan suntsitu edo ia suntsitu egin zituzten zuriek eta beltzek.

Zergatik egiten dute

Espainiako estatutuaren eta ugazaben erakundeek darabilten argudio nagusia: etorkinak samaldaka ekarri gabe, ezin daitezke ordaindu pentsioak. Baina, Espainia deritzotenean, gaur egun badira 3,2 milioi langabetu, eta 2,5 milioi gazte, zeintzuek azken hamar urteetan atzerrira joan behar izan duten, hemen lanik aurkitu ezin-eta. Guztira: kopuruak borobilduta 6 milioi pertsona, lan egiteko gertu direnak, zeintzu gure enpresarioek ez dituzten kontratatu gura. Jokabide hori ulertu daiteke, baldin eta kontsideratzen badugu etorkinak ekarri ditzaketela, zeintzuei ordainduko dietena izango baita bertakoei ordaintzen zaienaren herenetik beherakoa.

Baina horretaz gain: estatu espainiarrak badu beste era bat, hainbat eta hainbat diru aurrezteko, hau da, langileak izango direnak bertan hazi barik kanpotik ekartzen dira; halatan hazkuntza-gastuak “zero” direlarik. Hartara, hainbat aurretzen da zenbait arlotan: osasungintza, eskola, azpiegiturak, etab. Emigrazioa negozio galanta da Estatuarentzat, sasoiotako handiena. Era berean, ailegatzten diren etorkinak lan egiteko sasoi izaten dira; beraz, Estatuari zergak ordaintzeko adinean, Estatuaren funtsak hornituaz. Azken baten, emigrazio masiboa dela-eta, enpresario handien etekinak zein estatu espainiarreko ogasunaren sarrerak handitzen ari dira, oso azkar.

Emigrazioa era bat da zenbait “eragiketa” gauzatzeko: herrialde txiroetatik herrialde aberatsetara pasatzea aberastasuna; herrialde txiroak zeharo eta zehatz esplotatzea. Haiek gizakiak hazi behar dituzte (horrek badu, berez, kostu ekonomiko jakinik); eta gizakiok gero herrialde aberatsetan produkzio-lanetan jardungo dute. Jokabide horrekin, neokolonialismo europarrak prozedura berri bat darabil, zeinarekin garatu gabeko herrialdeetan harrapaketak egiten baititu, eta baita herrialdeok pobretu ere. Lehenik, lehengaiak ohostu zizkieten, eta orain euren eskulana. Bere jaioterrian, etorkin bakoitzak hazkuntza-gastu batzuk eragin baditu (150.000 euro-edo), jakin egin beharko litzateke: gure neo-negrero “errukiorrek” ia zer dela-eta ez duten eskatzen eze —herrialde haiek konpentsatzeko— etorkin bakoitzeko kopuru hura paga dadila. Motiboa hauxe da: hori egin ezker, emigrazioa ez litzateke izango gaur egungo negozio itzela.

Baina kausa ekonomikoak ez dira eragile bakarra, ezta printzipalena ere. Badira motibo estrategikoak, berbaldi baten aztertzen ditudanak, hain justu ere **“¿Por qué están exterminando a los pueblos europeos?”** deritzon bideoan.

Kausa printzipal bi badira. Bat: European botere eta aberastasunaren metaketa hain da handia, ezen, azken mende erdi honetan, eratu den oinarrizko egitura ekonomikoa eta politikoa ez baita bateragarria Europako eta Mendebaldeko oinarrizko balore positiboekin. Batez ere, kultura europarrean funtsezkoak diren hauekin: libertate globala, autonomia pertsonala, pertsonaren aukeramen, nortasun burujabea, autogobernu herrikoa, arlo ekonomikoaren izaera komunala, bizimodu-era integrala, herritarrek elkarri laguntzeko erak, maitasunean oinarritutako mundu-ikuskerak, Estatu txikia edo ia ezerezean dena, Estatuaren eta gobernuaren aitzia erresistentzia aktiboa, lan librea, norbere kultura eta hizkuntzarekiko atxikimendu gogoetatu eta emozionala, aberastasun materialaren perbertsitate, diruaren zikintasuna, tiraniari aurre egitea eta iraultzaren premia. Halako baloreak, faltsutu eta manejatuta egin dituzte —apropos gainera— aparatu akademikoek, hedabideek eta —ok egin arte— diruz lagundutako intelektualitateak. Hala ere, herriak berak eraikitako kultuaren parte dira balore horiek (batez ere, euskaldunen herriarenak), eta hori ezin dute eraman hipertrofiatutako estatu berriek, enpresa transnazional eskergak eta, gehienik, Europar Batasunak. Egoera horren aurrean, boterearen

⁵Zurien aurkako arrazismoak ezarritako axiomak dio zuriek bakarrik direla arrazista, eta gainontzeko etniak biktimak baino ez. Jokabide politiko edo kulturazko kriminal bat —zein da arrazismoa— beste barik azalaren koloreari lotzeak, erakusten du eurak direla arrazista txarrenak. Baina jazoerek erakusten dute gezurra diotela. Eta ez tutsi-en kasuan bakarrik, zeintzu hutu-ek ia desagerrarazi egin zituzten, 1994n (Ruanda), 2 milioi biktimarekin (haien % 85); baita ere Hegoafrikan, non arrazismo akerra praktikatzan den, hain justu ere bertako beltzek espoliatu, egurtu eta bizirik erretzen dituzte alboko herrialdeetako etorkinetatik (beltzak eurak ere) ehunka eta ehunka. Hainbat eta hainbat kasu aipa daitezke; izan ere, Afrikan arrazismoa borborka dago, odol asko isuriaz. Emigrazioarekin batean datoz aipatu bezalako jokabideak, eta EBko botereek bertako biztanlerien aurka erabiliko dituzte, une egokia dela uste dutenean; edo biztanleriotan geratzen direnen aurka, hamarkada pare bat barru. Eta ondorena hauxe da: honezker ezin ditugu gehiago onartu neo-negreroek Afrikaz ezkututzen dutena zein diñoskuezan gezurrak. Egia jakin nahi dugun.

lehenengo erreakzioa hauxe izan zen: Europako jendeak masiboki akulturalizatzea, orain dela mende erdi hasi zen hori. Jokabide horren bitartez, Europako jende horiei erauzi eta kendu egin zaizkie ia erabat euren ondare kulturala eta axiologikoa. Baina soluzio hori ez zaie aski eta gainera arazoak sortzen ditu; astiro doa eta korapilatsua da. Bigarren soluzioa hauxe da: jende horiek suntsitzea, eta ordezte besterik ez; zehazki, zenbait eremu sozial, politiko eta kulturaletatik ekarritakoez; baina horiek ez datoz bat eta ez dituzte ulertzen europarren aipatu baloreak. Hau da: txakurra akabatu ezker, amorrurik ez. Hortik hara ulertzen da hau: zuriaren aurkako arrazista europarrak pozarren dira, zeren 2035erako Europako biztanleriaren herena jatorri afrikarrekoa izango baita, 2060rako hiru laurdenak; izan ere, datozenak jende gazteak dira; beraz, egokiak seme-alabak izateko; bien bitartean, europar zaharkituak ia erreproduzitu ere ez dira egiten.

Gizakiak izaki biologikoak izatez gain, izaki kultural konkretuak dira. Eskuratu egin dute mundu-ikuskeraren bat (ezarri egin dietena, eurek eraiki dutena, edo erdi eta erdi), zeina eraturik botereekin onargarritzat jo dezakeen edo baztertu beharrezkotzat, zirkunstantzien arabera. Gaur egun, Europako kapitalismo nagusiak oso gogoko ditu pertsona moldagarriak, hau da, era askotan egin daitezkeenak mendeko eta euren nortasuna eta herritasuna (gutasuna) anulatu ahal zaizkienak. Esate baterako, gogokoago ditu gizarte islamiarrik, Afrika beltzekoak, eta bai, nolabait, asiarrak ere. Izan ere, horiekin alderatu ezker, argi dakusagu eze, europarren egiazko kultura herrikoietan badagoela libertatearen alde borroka egiteko joera. Mendebaldeko mundu-ikuskeraren osatzerakoan, Euskal Herriak funtsezko eginkizuna burutu du, baskoien iraultza bagaudatik (V. mendea) gaur egunera arte; eta hori dela-eta boterearen helburu printzipaletariko bat da: euskaldunen herria desegitea, etnia, hizkuntza eta kultuaren aldetik.

Bigarren kausa berez dagokio Europar Batasuna sortu eta eratzeari. Mundu mailako jokalekuan, hura dominatzen duten superpotentzia oso boteretsuak indarrean direlarik, zereginik izatekotan, estatu europarrak Alemaniaren inguruan batu dira, zertarako-eta *“Europako Estatu Batuak” (nazio europarra)* eratze, non behar-beharrezko duten giza-komunitate berri bat. Hau da, hizkuntza bateratzaile batekin —ingeles neohizkuntza—, artifiziala dena, gizakiaren ahalmen gorenak suntsitzera bideratua, hain justu ere gizakia subhumano izatera murrizteko. Eta horretaz gain, mendekotasuna aldezteko eta gizakien nortasunak ukatzeko azpikulturarekin, non ez baita erreferentziarik libertateaz, osagai nagusitzat dituelarik erabat esanekoa izatea eta amaibako lana, betiere aberastu daitezkeen Europar Batasuneko estatuak, eta europar multinazional eskergak, zeintzu diran EBren eta estatuen kumeak; izan ere, enpresok ezin baitute iraun horiek gabe.

Estatu-nazioaren teoria, iraultza frantziarrak sortu zuen eta espainiar iraultza liberalak aplikatu; eta Euskal Herrian, teoria horretan tematzen direnek ez dituzte ulertzen Europa Mendebaldeko errealitate berriak, politikari, ekonomiari, kulturei, hizkuntzei eta etniei dagokienez. Izan ere, honezkerok ez baitago lekuri herri bakoitzak “bere” Estatu izateko, hala “nazio” bat eratze, dagozkion hizkuntzarekin eta kulturarekin. Gaur egun poli-estatu bakar bat dago, zeinak hiriburutzat duen Brusela, eta pertsona gutxitan metatzen du aberastasun ikaragarri handia, enpresa transnazionalen bitartez; guzti hori gauza dadin, behar-beharrezkoa da estatu-aparatu eskerga bat, hizkuntza bakarrarekin (aizuna), etnia bakarrarekin (zeina aterako baita: Europan orain arte izan diren etnia guztiak desegitetik eta kanpotiko jende-ekarpen kopuruz ikaragarrietatik —masa humano eskergetatik—), eta azpikultura berri batekin. Horrela doa osatuz “nazio europarra.

Horixe izan daiteke herri europarren hilobia. Guztiena.

Euskera, emigrazio masiboaren sasoian

Duela hogeit hamar urtetik hona ikusi izan dut eta baita salatu ere, nire ama-hizkuntza, gaztelera, suntsitzeko estrategia. Aspaldi adierazi nuen garrantasunezko ironiaren bidetik eze mende honen erdialdera ezker ingelesez irakurriko dela El Quijote. Baliteke hori gehiegikeria iruditzea haiei, informazio nahiko ez dutenei edo instituzioen propagandan sinesten dutenei; izan ere, esan ohi da gaztelera dela Munduan hiztun gehien dutenen artean bigarrena (edo, gehien jota, hirugarrena); baina datu hori; berez, ez da erabakigarria hizkuntza baten iraupenerako eta etorkizunerako. Aski da kontuan izatea zer gertatzen ari den Estatu Espainiarraren hiriburuan, Madrilen, non aldekatasunez eta leku orotan agertzen baita ordezkapen linguistikoa. Halaber, ingeles neohizkuntzak aurrera egiten du azkar Europar Batasunean eta mundu osoan, eta guzti horren ondorioak neurtu egin daitezke —egunegun— argi eta garbi diren egitateetan oinarriturik. Gaur egun, guzti horri gehitu behar zaio kontinente guztietatik datozela pertsonak, milioika, zeintzuek hizkuntza ezberdinak dituzten.

Nire ama-hizkuntzarekiko ardura arduratsua izatetik hausnarketak egitera pasa nintzen, hain justu ere egoera txarrean diren hizkuntza europarren orainaz eta etorkizunaz. Gaelikoaren egoerak haserrea eta pena eragin zizkidan; izan ere, herri irlandarraren antzinako hizkuntza da, irlandar estatu independenteak (1922tik aurrera) hondatua; horrekin ikusten da soluzio estatalak ez duela balio Irlandarako, ezta inorako. Katalanari buruzko datuak bildu nituen, eta, zentzuzkoa denez, euskeraren egoerari ere erreparatu nion, bera baita seguruengik Europako hizkuntza zaharrena, eta baita gaztelari hainbat eragin izan diona. Gertatzen ari denari eta gertatuko denari igartzeko, honako hauek kontsideratu behar dira: 1) hizkuntzen bizitzaren eta bilakaeraren baldintza objektiboak; 2) euskeraren ezaugarri aparteko-nabarmenak, 3) gaur egun, Europan eta planeta osoan diren zirkunstantzia konkretuak.

Euskera ez du onartu sekula estatu espainiarrak, ezta estatu frantziarrak ere, eta ez dute inoiz ere onartuko. Gauza bera egiten dute EBko (Europar Batasuna) instituzioek. Hiru erakunde horien azken buruko helburua da eta izango da euskera desagerraraztea. Gaur egungo egoeran, bada nolabaiteko “tolerantzia”; batetik, aldi baterakoa dena, eta, bestetik, estrategia baten parte dena, euskera metodo “lehunekin” desegiteko. Frankok prozedura oldakorak erabili zituen, baina ez ziren izan erabakigarriak; hala ere, egoera oso okertzea lortu zuen, estatu espainiarraren barrualdetik Euskal Herrirako emigrazio masiboa sustatuaz. Horietarik % 50ek erabiltzen du euskera, ez oso egoki, baina erabakigarria da eze, euskerarekiko ez dutela atxikimendu emozional handirik. Egoera hori konpontzeko, erabili ohi den argudioak honako hau dio: gakoa da denak sartzea hezkuntzako eskola-sisteman, honezkero erregimen parlamentarista ezarrita baitago. Hala ere, esan daiteke eze, Bilbo (eta hurreko zenbait herri) euskerarentzako hiri galdua dela, eta hori eragin duena emigrazio masiboa izan da, XX. mendearen erdialdetik aitzina. Hortaz, euskera hezkuntzarako hizkuntza egiteaz (beraz, estatu-hizkuntza, zehazki, EBN integratutako estatu espainiarrarena) lortu diren emaitzak ez dira batere onak⁶

Hizkuntza ororentzat, eta areago eukerarentzat funtsezko pareta hauxe da: ama-hizkuntza—herria, eta ez beste hau: eskola—estatuak. Zeren, berriro esan behar badut ere, hizkuntzak sortzen eta iraunarazten dituzte herriek, eta ezereztu eta desegin, estatuak.

Emigrazioak 150en bat hizkuntza ekarri ditu EBera, duela belaunaldi bat Europan ez zirenak, honezkero haietako batzuek milioika hitzunt dituzte, eta horiez gain, badira bertako 60. Europar Batasuna botere zentralizatuko sistema bat da, non estatu oso indartsua eta funtsezkoa den; beraz, ezinbestekoa zaio hizkuntza bateratzaile bat izatea, biztanle guztiek ezagutuko dutena. Esate baterako, halako hizkuntzarik gabe, ez litzateke bideragarria armadaren (2 milioi soldadurekin) proiektua, laster gauzatzekotan direna. Halako hizkuntza ingelesa da, zehazki, aldaera artifiziala, ez dena herriarena, ezta inoren ama-hizkuntza, hau da, irakatsi egiten dena (hortaz, birsortua eta asmatua), Estatuaren (nahinongo delarik ere) funtzionario diren irakasleen bitartez.

Ingelesa, ingelesaren ordezkari aizuna, nagusitzen ari da azkar eta miramendurik gabe. Madrilen, lehen irakaskuntzako eskolak elebidunak dira, eta irakaskuntza ertainetan gaztelaraz ematen diren eskola-orduak gutxi dira, gero eta eskasago. Horrek iragartzen dauku eze, belaunaldi bat barru (25 urte) edo lehenago gertatuko dela ordezkari linguistikoa, 50 urtetik beherako madrildarren artean, zeintzuek masiboki utziko dioten gaztelera erabiltzeari, halamoduzko berbeta berriaren mesedetan. Madrilen eta beste hiri batzuetan, klase ertainak (euretako kide gehienak) berbeta berria horren aldeko hautua egiten ari dira, eta ondorenez, familiako hizkuntza egiten dute, etxerako lehentasuneko hizkuntza bihurtuaz; kausista horretatik aparte dira berez ama-hizkuntzatzat ingeles dutenak. Guzti hori dela-eta gaztelararen kalitatea hondatuz doa, ez baitago gaztelararekiko ardurarik, interesik edo atxikimendurik, nabarmen ikus daitekeenez 50 urtetik beherako jendeengan (batez ere, klase ertainetan); izan ere, egunez egun dira-eta akulturalizatuago, pragmatikoago, diruzaleago, totalitarioago eta faxistatuago.

⁶**Populazioaz eta demografiak**” bideoan Maria Jose Azurmendik azpimarratu egiten du asuntua hori, azken 45 urteetan euskera eskolako eta estatuko egitearen ondoriozko lorpen eskasak, baina, ez ditu aipatzen eragozpenak eta kalteak. Emigrazioaz, zeina “ekonomikotzat” jotzen duen, zera dio: helburutzat dituela soldatu onak, osasungintzako prestazio onak, etab., eta gehienek ez zaiela inporta euskal kultura non den edo zer den; eta, bestalde, dio ez dutela integratzeko borondaterik; izan ere, euren kultura eta hizkuntzei eutsi nahi dizkiete, getoetan biziz, eta hala oso zaila dela euren laguntza izatea, “euskal nazioa” eraikitzeko. Dena dela, autoreari Europar Batasunaren hizkuntza-politikaz analisisa egitea falta zaio, eta, halaber, arazoa demografikoaz ere. Eta, bereziki, bertako natalitatea sustatzeko proposamen global bat egitea ere falta zaio. Gauzak horrela, euskaldunaz egin ohi den definizioa, hau da, “Euskal Herrian bizi eta lan egiten duena” ez da baliozkoa, ez da onargarria eta aldatu egin behar da.

*“Europaren eraikuntza”*ren osagai erabakigarria eta nagusia denez, Europar Batasunak ordezkapen linguistikoa eskatzen du. Mendebaldeko Europako hizkuntza guztiak ordeztzen ari dira ingeles artifizialaz, Estatu funtzionarioen, eskoletako eta hedabideetako denaz (EBn, laster, baita armadarena ere); ingeles herrikoia (benetako ingelesa) eta alemaniera ere ordeztuko dira. Alemaniako oligarkia estatala eta finantzarioa da guzti horretan gehien irabazten duena, eta baita prozesua despotismoz zuzentzen duena ere; bere hizkuntza ere “baztertuko” du; Alemania dagoeneko elebiduna da 50 urtetik beherakoentzako, eta belaunaldi bi edo hiru barru alemana bigarren edo hirugarren mailako hizkuntza izango da, desagertzeko bidean.

Estatu batek, alemaniarrek, bere hizkuntza nazionala bertan behera uztea, kontuan izan beharko da euskal kasua aztertzerakoan. Hori kontuan izanik egiaztatzen da estatu oren funtsa boterea dela: militarra, poliziala, administratiboa, ekonomikoa, judiziala, teknologikoa, kulturala eta erlijiosoa; baina estatuarentzat ez da funtsezko: fidela izatea herriarekiko, hizkuntzarekiko, historiarekiko edo balore batzuekiko edo kulturarekiko. Estatu ororentzat, edozein estatuarentzat, hizkuntza “lanabes” hutsa da; hortaz, bat laga dezake edo beste bat hartu, segun eta zein komeni zaion bere dominio- eta aginte-ahalmena maximizatzeko. Ama-hizkuntza bati iraunarazteko, Estatuaren erakunde baten —lehendik denean edo sortuko denean— konfiantza jartzea: oker jokatzeko da. Europar Batasuna lasterketa zoro eta anker baten denez, zentralizazio zorrotzera gauzatzekotan; bada, jada ez du lekurik estatu berrientzat, kasu katalanean gertatu denez, *“procés”* delakoarekin eta *“dret a decidir”* izeneko erreferendumeekin. Guzti hori kondenatu eta errefusatu du, maltzurki, Europar Batasunak, eta baita kapitalismo finantzario eta enpresarial eskergak —katalanak—, aurreneko zirela Caixa eta Bando de Sabadell. Halatan, bada, estrategia iraultzailearen bitartez soilik eskura dezakete libertatea herri europarrek.

Norbanakoarentzat bere ama-hizkuntza erabakigarria da. Ez bakarrik, batez ere, amak irakasten diona, baita jaio aurretik amaren sabelean delarik entzuten duena ere. Izan ere, hizkuntza horixe bakarrik izango baitu baliagarri bere giza-izatea osoki gauzatzeko, baldin eta kontuan izaten badira hizkuntza natural batek betetzen dituen edo bete ditzakeen funtzioak: 1) gogoeta bidezko jakintza gauzatzea, 2) emozioak egituratzea, 3) espirituaren egoerak komunikatzea, 4) besteei entzutea, 5) berdinen artean elkarbizitza egitea, 6) maitasuna atondu, sentitu eta pentsatzea, 7) nork bere burua eraikitzea, autopertsuasioaren eta borondateko ahaleginaren bidez, 7) beste batzuekin batean errealitatea eraldatzea, 8) pertsona gisa, kolektibitate linguistikoko bateko kide egitea, hau da, komunitate herrikoi jakin batekoa, 9) libertate politikoa baliatzea, berdinekin batean autogobernatzen den pertsona egiteko, 10) pertsonen arteko harreman libreak antolatzen dituzten itun eta kontratu pribatuak finkatzea, 11) ohiturazko zuzenbidea adierazi-komunikatzeko euskarria izatea, 12) ontasuna, egia eta edertasuna sentitu eta espresatzea. 13) hitzez besteko komunikazio pertsonen artekoa osotzea, 14) bere esperientziatzko askotariko esentzian objektuak izendatu, ulertu eta eraldatzea.

Hizkuntzei lotutako beste arazo bat familia desintegratzearena da, eta ez bakarrik zabala dena, zeina baita euskaldunei dagokiena, baita familia nuklearra ere. Familia-era guztiak. Ia familiarik ez bada, salbu eta “guraso bakarrekia”, zeina baita degradatuena, penagarriena eta tristeena, eta auzotarren komunitaterik ez bada edo ia ez bada, ama-hizkuntza eskuratu-ikastearen badira gabeziak. Hartu-emanetarako, elkarbizitza egiteko, produkzioarako, zainketak eta hazkuntzakoak egiteko instituzio naturalak, hau da, benetako familiak deseginda direlarik, hizkuntzaren arazoa gaiztotu egiten da, hortik hara ulertzen da eze, gero eta ume gehiago ez moldatzea egoki ezin hizkuntzatan, zeren ez dituzte hartarako kondizio egokiak; izan ere, “ama”-tikoak esan gura du: “ama-familia-azune”-tikoak. Gaur egun, estatuak puztu egiten dituzte artifizialki sexuen arteko gatazkak, arazo hori trataezina eta konponezina izan dadin, eta andrazkoak eta gizonezkoak elkarretarik urrundu-bereizteko eta haserrean jartzeko; guzti horren ondorioetariko bat da: hizkuntza erabiltzeko era kaskartzeko doala. Eta zelan eta hizkuntza funtsezkoa den: adimena, soziabilitatea eta barneko bizitza aberatsa izateko; bada, arazo latzarekin egiten dugu topea, zeinak dakarren gizakiak ezintasunekin haztea; ezintasun askorekin.

Estatuak gerran dira familiarekin; izan ere, familiak —aurkari izanik— mugatu egiten baitie euren botera. Hori dela-eta egungo estatu eskerga, ongi-izatearen estatua, familia birritzen ari da, hau da, pertsonen kundu egiten baitie: orain dela gutxira arte zeukaten babesleku printzipalena —hartu-emanak izateko leku aparta, emozio sakontzako eremua—. Guzti horrek hainbat ondorio ditu, eta horietako ba da: hizkuntzaren gainbehera edo kaskartzea. Euskera bezalako hizkuntza gutxituentzako, hori oso larria da.

Herria/estatu-boterea dikotomian oinarrituriko gizarteetan, zenbat eta indartsuago botere hori, orduan eta ahulago herria; eta hizkuntza erabiliko da: gero eta gaitzesgarriago diren jardueretarako: a) agintariengandik aginduak jasotzea, b) berdinei hitzeko erasoak egitea, c) adoktrinamendua leku orotan izanez kontzientzia-askatasunari erasotzea, d) aparatu militar baten integratzea, e) polizia-etxeetan, disidenteak eta iraultzaileak itaunkatzea, f) eraturako botereak ezarritako kontsignak oihukatzea, g) gizaki konkretuaren esentzia suntsitzeak dakarren diru-gose eta -grina espresatzea. Egikizun horiek dira ingeles neohizkuntzak burutu behar dituenak, zeren baztertu egiten baititu ama-hizkuntzak. Hortaz, halamoduzko berbeta da, zeren ezin baita hartu hizkuntzatzat, ez ditu-eta hizkuntza batek behar dituen tasunak. Honako hauek: ama-hizkuntza izatea, herritarrek eurek sortua izatea; gizatasunezko den oro, osotasunean, barne hartzea, eta etengabe hobetuz joatea.

Hala, berbeta halamoduzko horrek bentzi baleza, orduantxe litzateke hizkuntza europarren amaiera, eta, halaber, emigrazio transkontinentalak ekarritakoena. Arego dena: gizatasunezkoa garatu eta espresatzeko baliagarri diren hizkuntzena. Neohizkuntza denez, hondatu egingo dira (edo bide horretan dira) pertsonaren eta giza-kondizioaren tasun funtsezkoenak, halako neohizkuntzaz ezin baitira gauzatu. Eta martxan da prozesu hau: ordezkapen linguistikoarena, ordezkapen etnikoarena, akulturalizazio unibertsalarena, erreproduzitzea galaraztekoarena, emigrazio masiboarena eta derrigorrezko autogorrottoarena; eta horren bitartez ari dira Europa eraikitzen, hain zuzen ere gizartearen oinarrian gizakirik ez duena. Hizkuntza-aldaketa dela-eta klase herrikoiak guztiz menderatutako subhumanoz osotuko dira, hain justu ere era askotara mendeko eta pentsatu zein sentitzeko ezgauza direnez. Baina, gauza direnak: morroi gisa lan egiteko, gero eta handiagoak diren zergak pagatzeko eta botere politikoari orotan obeditzeko. Horixe da ondoriozta daitekeena euskara, gaeliko, katalan, galego, gaztelaren eta beste batzuen krisiaren azken analititik.

Esana dugunez, hizkuntza naturalak ikasten dira: amaren sabelean, amarekin, familiarekin, auzotarren komunitatearekin eta herriarekin berarekin. Eta herrian ikasten dira, zeren herria baita sortu eta birsortu dituen. Kulturaren askotariko espresio-erei lotuak dira, herriak berak eraikitako ahozko kultura direnez, zehazki, herri bakoitzeko pertsona arruntaren —norbanako eta komunitate gisa— esperientziako jakintza agertzen dutenez. Euskara ez da sekula izan erlijio baten hizkuntza (zein da hebraiera, arabea, etab.), ezta estatu-hizkuntza ere, beti irauin izan du ama-familia-auzune-herritiko hizkuntza gisa. Horrek bakan egiten du, bakarra bere gisa, eta erakargarri oso. Horretan oinarritzen dira bere tasun apartekoak, eta konbentziturik nago bere ezaugarri asko halako kondizio berebizikotik datozkiola⁷.

⁷*“Los primitivos habitantes de España. Investigaciones con el auxilio de la lengua vasca”* lanean, G Humboldt-ek oharpen garrantzitsu bat egiten du. Zeren honako hau dio: “euskal hizkuntzaren erregularitate falta, batez ere eratorrietatik erroetara joateko” esplikatzen da euskaldunen artean ez delako botere politiko bateraturik, sekula ez zuten izan “buruzagi bakarra”, eta hori desberdin da galoen kasuan, zeren, “druidek eta bardoek” halakorik bazutenez, “hizkuntzaren erregularitatea” ezartzen zuten. Izan ere, herri baten segun eta zeintzu diren erregimen politikoa, zuzenbidea, etika eta ohiturak, herri horrek beretzat dituen printzipio eta baloreekin bat etorri; bada, halakoxe da bere hizkuntza. Horren arabera, hizkuntzentzat oker eta kaltegarritzat jo behar da: kontsideratzea motiborik gabeko kausa; errealitate autonomo, geldi eta perfektu; kontuan izan gabe hartu-emanetan dela kulturarekin, politikarekin, axiologiarekin eta praktika herriko osoarekin, halako eran ezen, hizkuntzak kultura sortzen badu ere, kulturak moldatu egiten duen hizkuntza. Humboldt-ek diosku eze, herri-demokraziaren eta askatasun politikoaren hizkuntza dela euskera, eta hori dela-eta daukan egiturak berak agertzen duela herriaren eta boterearen —herritar arrunten eta Estatuaren— arteko dikotomia. Izan ere, hala da, baina hark dion baino areago, zeren ez baitzuen Euskal Herriaz informazio handirik. Nafarroako Erreinu, hau da, Estatu Nafarra X. mendearen azkenekoa eratzen da, batez ere, XI. Mendean (baina ez lehenago); bada, estatu horrek euskaldunen hizkuntza ez erabiltzeak —bere legerian, agiri ofizialetan, foru nagusian eta gainetikoan— argi erakusten deusku eze, euskera ukatu eta errefusatu egin zuela. Peio Monteano-k bere *“La lengua invisible”* liburuan kontatzen digu dikotomia guztizko hori, herri nafarraren —euskaldunaren— eta Estatu Nafarraren artekoa; guzti hori, lehenagotik, agertua zeukan J.M. Jimeno Jurio-k, *“Navarra, historia del euskera”* idazkian. Latina erabiltzen zutela-eta, esatea: Europako estatu bat ere ez zela baliatzen bertoko hizkuntzez, ez da egiazkoa. Esate baterako, Nafarroako Foru Nagusia eta Alfonso X.ren Las Siete Partidas (testu juridikoa) sasoi berekoak dira, eta, asmoz behintzat, osorik dago gaztelarez; beraz, egin beharreko galdera da: zergatik ez dago idatzia euskeraz Nafarroako Foru Nagusia (XIII. mendeko bigarren erdialdekoa)?; garai hartan euskera baitzen Nafarroako herritarretatik % 85aren hizkuntza. Legeen Ordenamendua Alcalá de Henareskoa (1348), Nafarroako Estatuaren aipatu lege-sortaren parekoa dena oso osoan; bada, gaztelarez idatzia dago. Aragoiko Foru Kodea, 1247ko Hueskako Gorteek promulgatua, latinez dago; baina erromantzeraz itzuli zen XIV. mendean. Lledó-Guillem-en *“La formación de la identidad lingüística catalana (siglos XIII-XVII)”* liburuan, azaltzen da Aragoiko Koroako Kantzilergoak, jada XIII. mendearen azkenaldetik, dokumentu juridikoak, politikoak eta legeei buruzkoak ematen zituela katalanez eta aragoieraz. Jada XV. mendean, euren legeetan, estatu europar guztiek erabiltzen zuten bertoko hizkuntza herrikoia. Halakorik ez zen jazo Nafarroan, 1512 baino lehenago, ezta geroztik ere. Testu politiko edo legezko bat bera ere ez dago euskeraz Nafarroako Estatuak promulgatua. Horrek arrazoia ematen dio Humboldt-i, eta horretaz gain, hainbat gauza erakusten dizkigu Estatuaren eta hizkuntzen arteko hartu-emanen. Hortaz, euskeraren eta Estatuaren arteko bereizketa erradikala denez, euskeraren eduki herrikoia handienetakoa da, eta hori poztetako da askatasuna maite dutenentzat. Esan daiteke: hizkuntza herrikoia, herritar arruntena eta zibila dela, halakorik inon izatekotan. Autogobernuaren hizkuntza. Moralitasunerako eta politikorako, etorkizunean datekeen hizkuntzarik egokiena. Eta honako hau gehitu nahi dut: Nafarroako Foru Nagusiari buruzko nire estudioan (*“Derecho Pirenaico/Zuzenbide Piriniarra”*, Nabarralde 2017), Humboldt-en ondorio berberetara ailegatzen naiz.

Behin hizkuntza bat estutu-botearen jabetzako egin ezker, utzi egiten dio herrikoi izateari, beregain izateari, eta aipatu botearen lanabes bihurtzen da. Eta betetzen dituen sasiko funtzioak direla-eta andeatu egiten da, zeren herria/boterea gatazkak eragiten baitio, zeina beti izaten baita, sasioen arabera indar-maila handiago edo txikiagoz. Hortaz, hizkuntza gutxiuak eskolako eta instituzioetako hizkuntza bihurtzeak arazo larriak dakartza, sarritan erabakigarriak: hor dugu gaelikoa hala dela ikusteko. Izan ere, instituzioei esleitzen zaie hizkuntzari iraunarazteko eta behar zaizkion berrikuntzak egiteko eginkizun erabakigarria, eta ez herriari. Irakaskuntza-sisteman sartzeaz dena konpondua dela sinestea, edo hala hizkuntzari eutsi egiten zaiola; bada, errakuntza ikaragarria da. Herriak bere gain hartu eginkizun horiek, edo, bestela, hildako hizkuntza bihurtu, luzaro gabe.

Euskera suntsitzeko estrategia, gaur egungoa, Espainiako eta Frantziako estatuek eta Europar Batasunak/Alemaniak taxutu eta burutua, honako honexetan datza: batez ere, biztanleriak irakaskuntza-sistemaren bidez ezagutu dezala, eta euskaldunen herriak sistema horrengan utzi ditzala euskera iraunarazi eta perfektionatzeko zereginak. Hezkuntza-maila orotan sartuaz, baliteke orok ezagutzea; alabaina, kaskar eta ikasgai gisa. Helburu estrategikoa baita: ezagutu dadin, baina erabiltzeari utzi dakion, “berezko” jazoera bailitzan. Oso arrakatsua da: euskaldunen hizkuntzaren iraupenaren gaineko ardura estatuen eskuetan ipintzea. Lehenik eta behin, halako jokabidea ez delako eragile inon ere, zeren gaztelarari berari ere azpilana egiten baitio estatu espainiarrak. Bigarrenik, Irakaskuntza-aparatuak irakatsi eta erabil dezake hizkuntza bat, baina nekez sortuko du halako atxikimendu barnekoa, hizkuntza zinez estimatzea eragingo duena hiztunarengan. Aipatu sistemak transmititzen ditu jakintzak (txarto, baldar eta eragingarritasun barik, gai guztiakin dagien bezala, zeren eskolaren pedagogia erdipurdikoa baita, halakoa denez berez), baina ez emoziorik: azken hori solik egin dezake komunitate herrikoiak (familia, auzunea eta herria hartzen dituenak⁸)

Bigarrenik, hizkuntza batenganako jainera lotua da kultura oso gogoko izateari; zeinaren kausa, ibilbide eta eragile baita hizkuntza. Baina Euskal Herrian egunero dakusagu eze ohikoa dela euskal kultura menostzat hartzea; izan ere, lehenik ezikusia egiten zaio, bigarrenik ukatu, eta hirugarrenik erasotu. Hortaz, batz besteko euskaldun berriak, esate baterako, emigrante eskolatuak ez badu familia giroan ikasitakoaren antzeko sentipenik, nekez izango du jainerarik hizkuntzarentzako, nahiz eta egoki erabiltzeko gai izan (gauza oso ezohikoa). Zeren giza-komunitate bateko kide aktibo izateak dakarren emoziorik gabe, hizkuntza ez da besterik komunikazio-zeinu eta -hotsen sistema bat baino, aspesiaz, neutraltasunaz eta pragmatismoz erabiltzen dena. Jainerarik eta kulturarik gabeko halako hizkuntza erraz ahazten da edo, kasurik hoberenean, ez da erabiltzen. Guzti horren testuinguruan, leku orotan sustatzen da “hizkuntza” unibertsala, ingeles mordoiloa, halamoduzko berbeta, zeina baliagarri baita guztiz totalitarioa den modernitateko infragizakientzako; izan ere, modernitate hori ziztu bizian ari dira eraikitzen.

Hortaz, Euskal kultura —XXI. mendeko kondizioekin bat etorritz— errekreatzea behar-beharrezkoa da euskerak iraun ahal dagian. Horretaz nik dudan irizpidea “Euskal Herria bere baitarik” goiburuan sartzen da.

Baldintza horietan ari da burutzen etorkin transkontinentalen etorrera masiboa. Euskal lurraldeetan, 2018. urtean, ama ez-bertakoetariko jaoitza-portzentaia % 26koa izan zen, hau da, jaoietarik laurdenak baino gehiagok ez dute ama-hizkuntzatat euskera, ezta gaztelera ere (salbu eta latinoamerikarren kasuan). Baina, berriro ere, igartzen dugu eze, ematen dizkiguten zenbakien bidez nahastu egiten gaituztela instituzio ofizialek, Izan ere, zein da: atzerritiko aita izanik jaiotakoaren portzentatia? Ama bertakoa eta aita musulmana izanik jaiotakoaren kasuan, hori erabakigarria da, zeren musulmanentzat arabiera baita hizkuntza behinena; bera erabiltzen da Koran liburu santuan, eta liburu hori buruz ikasi beharrekoa da. Zelan eta Islama sistema oso misogenoa den, gizonezko musulman orok (salbuespen gutxi batzuk aparte) seme-alabei arabiera ikasi

⁸ Baieztaipen horri eustek ez dit ekarriko korporazioen aldeotasun edo sinpatia handirik, zeren —hizkuntzak direla direla-eta— franko irabazten baitute; haien artean dira: irakaskuntza-kidegoak, testu-liburuaren argitaletxeak, etab. Neure hizkuntza propioari dagokionez, esan behar dut eze eskolaren zein estatuaren eskuhartzeek ez dutela azkortuko gaztelera, ezta intelektual salbatzaileen belaualdi berri batek, ezta Real Academia Española de la Lengua-ren jarduera hobe batek, etab. VII-IX mendeetan, herriak sortu zuen gaztelera, eta gaur herritarren akzioz bizi da; osterantzean, hil egingo da. Gainontzeko guztia soberan dago, inutila delako (zati txikiena) edo kaltegarria delako (puska handiena). Iritzi bereko naiz Europako gainontzeko hizkuntzei dagokienez. Herria ta herria: horixe, nire ideien oinarri. Arego dena: borondate oneko herritarrek jakin beharko lukete zein den errealtatea, hau da, Estatu Espainiarrak abandonuan daukala gaztelera, Espainia (1986) EBera sartu baino lehenagotik; zahazki, Franko agintean zela, joan den mendeko 60ko hamarkadaren bukaeratik aurrera. Beraz, zentzugabekeria da pentsatzea eze, laguntza estatalak salbatuko duela gaztelera. Eta hori ulertzeko, kontuan izan behar dugu —Europar— jendearen gogoak estatizatu egin direla; izan ere, gogamenak manipulatu egin dira, esperantza oro ipintzeko Estatuetan, eta bapez, oster, herriarengan, berdinean, pertsonen burujabetasunean...

beharra ezartzen die, bertako hizkuntzak bigarren mailan utziaz. Antzeko eran, baina funtsean modu berean, gertatzen da aitaren hizkuntzari atxikitzea, erregimen politiko eta juridiko patriarkala duten herrialdeetatik datozen etorkineangan, afrikarrak nahiz asiarrak izan, musulmanak izan nahiz ez izan. Beraz, gaur egun Euskal Herrian, jaiotzen direnetarik % 40 inguruk ez du euskera familiako hizkuntzatzat. Zenbait auzune eta herritan, % 70etik gora.

Gaur egungo egoeraren ezaugarrietako bat da, proportzio hori haziz doala azkar eta urtez urte, zeren euskal natalitatea beherantz doa eta etorkinen etorrera gorantz. Bost urte barru, atzerritarra ama edo aita edo aita eta ama izanik jaioko direnen portzentaia % 50ekoa izango da, eta aldi bateko Euskal Herriko leku askotan, etnia, hizkuntza eta kulturaren aldetik euskaldun direnak gutxiengo dira, batzuetan nahiko murriztua, Otik 5. urtera arteko tartean; horrek erakusten deusku 15-20 urte barru zein izango den helduen arteko egoera; batez ere, eusten bazaio urteko 1,5 milioi etorkin ekartzeko asmoari; gaur egun 270.000 dira etortzen direnak. Kontuan izan behar da: ailegatzeko direnak gazteak direla, erreproduzitzeko sasoikoak, eta bertakoak, ostera, zaharragoak —sarritan jubilatutako edo atso-agureak— gero eta gehiago ondorengo gabe eta betiere edukitzeko gaitasunik gabe⁹.

Baina, guzti hori ostendu egiten da, herritarrei datu globalak eskainiaz, zeintzu faltsuak diren, hain justu ere Euskal Herrira ailegatzeko diren etorkinek biztanleriako ze parte (ehunekotan) diren zehazterakoan; halako amarrutan aditu da progresismo politiko estatuzalea¹⁰. % 12 dela diote, eta errealistenek (irribarre dagitela), % 15. Baina, etorkizun hurbileko proiektzioa egitekotan, zenbaki horiek adinen arabera banakatu ezker, dena aldatzen da. 70 urtetik gorakoan artean % 99 dira. 50 urtekoetatik 70ekoen artean, % 95. 20 urtekoetatik 50ekoen artean, % 60; 10-20koen artean, % 50, eta 0-10ekoen artean, % 30. Euskal Herrian, lehen irakaskuntzan euskaldunak gutxiengo dira, halaber gertatzen da Europa osoan bertako jendeekin. Etorkizun hurbilera (20 urte) proiektatzen badira datu horiek, ondorioztatzen da eze, ordezkapen etnikoa/arraza-garbiketa gutxitzea eta oso azkarra izango dela, baldin eta galarazteko esku hartzerik ez bada. Areago dena, geroago zehatzago esplikatzeko denez, ugazaben klaseak eta gobernu europarrek eredu bat taxutua dute, eskulanez hornitu ahal izateko; zehazki, belaunaldi gutxitan langilez agortzen dena, zeren galarazi egiten baitzaie seme-alabak izatea, bertakoei zein etorkinei, eta hala ez da sekula izango jende aski (harik eta herrialdeak diren, nondik harrapatu eskulana), edozein ere delarik euren jatorri etniko edo kulturala. Eta hori gertatuko ez balitz, Euskal Herrian aski denbora eman ezker, bertan finkatutakoek baleukate erarik: ondorengo nahiko izateko, hizkuntza ikasteko eta kultura (hasi-masiak behintzat) eurenganatzeko.

Argiro eta gordinik esanda, patronal bizkaitarrak etekinak emendatu ditzan; eta Alemaniak, Europar Batasunaren bidez, Europa domina dezan, Euskal Herriak desagertu beharra du...

Instituzio europarrek ingelesa sustatzen duten sasiotan, etorkin moduan ailegatu direnen ustez, eskolan euskera ikasi beharra inposaketa akademikoa da; ikasi behar hori gutxi batzuek dakusate borondate onez. Eta euskera gairatu beharreko "ikasgaia" bada, kontsiderazio are txarragoa du. Ikus dezagun hiru belaunaldiko zikloa, prozesu hori barruan daroana. Lehen belaunaldia finkatu egiten da Euskal Herrian, eta egoera jakin batetik egiten du kontaktua euskerarekin, hau da, bere ama-hizkuntza eta kultura beste batzuk dira. Etorkinetatik gutxiengoko batek hizkuntza borondatez eta aldekatasunez ere ikasiko du, baina bigarren

⁹Gaur egungo egoeran, aberrazioetako bat hauxe da: 25 urtetik beherako euskal andrazkoen artean % 6 bakarrik izan da ama; euren amonen artean, ostera, % 70. Bere egoera biologiko hobereanean delarik, emakumeari amatasuna galaraztea genozidio garbi-garbia da. Eskola-sistemak bahitu egiten ditu gazteak, ikasketa galgarri eta burubakoetan katigatzeko, neska-mutikoak robot otzan eta ezjakin guztizko bihur daitezzen, edo pertsona desesperatu eta nortasun hautsiko, zeintzuk beharrezko dituzten alkohola eta drogak. Hezkuntzaren arazoa konpondu gabe —18 edo 20 urterekin beharko litzateke amaitu—, arazo demografikoa ezin daiteke konpondu.

¹⁰Emigrazioak diruz laboratutako erdiko klaseetan ohikoa den progresismo politiko horrek badu hitzez erasotzeko joera, iritzi bereko ez direnen aurka egiteko dena ("arrazista", "xenofobo", "faxista", etab. hitzak erabiliaz), zertarako-eta patronalek eta instituzioek —Euskal Herrian eta Europa osoan— abian duten genozidioa babestearren; baina progresismo horrek ezkutatu egiten du eze, III. Reich-ak ere bazuela langile etorkinak erakartzeko politika bat, zehazki, gaur egun proposatu eta praktikatzen dutenaren antzekoa. Hitler-ek, mutilak gudaostean zituenez, eskulana behar zuen fabriketarako, batez ere armagintzetarako; eta zegoen tokietatik hartu zuen, hain zuzen ere Europako alde ez-arioetatik; bada, zona batzuetan, kanpoko langileak (borondatezkoak edo gerrako presoak) % 30 izatera ailegatu ziren, urte 2 edo 3ko epean. Halako gaietan, Eugene Davidson-en "**Núremberg, juicio histórico**" liburua klasiko bat da. "Arrazismoaren" aurka zarata gehien ateratzen dutenak eurak dira arrazista amorratuak; zeren, alde batetik, herri europarren suntsiketa sustatzen dutelako, eta, bestalde, zurien aurkako arrazismoa instituzioek diruz oso lagundua delako; izan ere, bertako europarrak "zabor zuri" dira; hau da, desagertu beharreko hondar. Berbagai ditugun asuntuetan, hiru gauzetan bat datoz naziak eta halako progresismoa: 1) emigrazioa masiboa, 2) eurekin bat ez datozenen aurka egitea, 3) kapitalismo handiaren eta Estatuko interes ekonomikoen alde lan egitea.

mailako hizkuntza gisa, ama- eta familia-hizkuntzak ematen dituen emozioak gabe. Euren seme-alabek eskolan euskara ikasten badute ere, eguneroko bizimoduan euren gurasoenari eusten diote; jatorriko hizkuntza eta kulturari ipintzen dute euren emozio eta gurarien zati nabari bat. Behin egin ezkerro halako galdera erabakiorra, “*nondik nator?, nor naiz ni?*”; bada, euren emozioak, kasurik onenean ere, zatiturik izango dituzte. Hirugarren belaunaldiari, halakorik baledi, oraindik ere afektuzko eragileak euren aiton-amonengandik datozkie, horien jatorriko herrialde, hizkuntza eta historiaz entzuten dutenaren bidez; beraz, izango dituzte okerrak eta hutsuneak euskal gizartearekin identifikatzerakoan. Laugarren belaunaldi bati itxaron beharko zaio.

Baina patronal handiaren estrategia bitxia da oso. Antza ondo ikasia dute ez duela —enplegatuen soldatetan— zertan pagatu beharginek erreproduzitzeko dituzten gastuak; zeren kanpotik ailegatzen baitzaizkio erreproduziturik eta hazita, hortik hara uler daiteke: 40 urtetik beherakoei ematen zaizkien soldatak erdira murriztu izana; guzti horren ondorioz enpresarioen etekinak itzazkoen handienak izan dira. Halako jokabideekin, argi dago bertakoei ezinezkoa egiten zaiela seme-alabak izatea, eta berdin jazotzen zaie kanpotik etorri eta honezkero bertan finkatu direnei. Horretara, azken horiei dagokionez, ez da egiazko uste hura, zeinak baitio erreproduzio-tasa handia dutela edo bertakoena baino handiagoa. Europan finkatu orduko ikusten dute eze, natalitatea eta erreproduziorako sexua de facto galarazten dituen ereduari heldu behar diotela. Ailegatuen bigarren belaunaldia hasiko da: ingurumaria ulertzen, bizi den lekuko kultura hartzen eta euskara asimilatzen; baina, ordurako emankorra izateari uzten dio; eta beharrezkoa egiten da berriro ere kanpotiko langile etorkinak ekartzea. Etorri berri horiek ez dira jakitun egoeraren gorabeheraz, eta zikloa berriro hasiko. Eta hala ekin ta ekin, harik eta langile etorkin gehiago ez den arte, zeren ez baita geratuko herrialderik, non eskulan sobranterik den, 2035 edo 2040 urteen inguruan.

Ez da zertan azpimarratu eze eskulanez era horretan hornitzea hilgarri dela euskerarendako. Hortaz, halako proposamena, zeinetan zehazten baita: Iberiako Penintsulara —30 urtean— 75 milioi etorkin ekarri beharra; izatez, da euskaldunen hizkuntzari amaiera ematea. Baita gaztelauenari ere. Halako pertsona-kopurua, horren erdia edo laurdena: ondorio bereko litezke.

Batzuek Argentinako eta EBetako kasuak argudiatzen dituzte, eta aipatzen: han etorkin masa trinkoak daudela, 1840tik gaur egunera arte ailegatutakoak, asimilatutakoak izan direnak eta hizkuntza arrakastaz eurenganatu dutenak. Argentinan, estatu-hizkuntza, gaztelera, nahiko arrakastaz hedatu zen, etorkin italiarrak osatzen zuten biztanleriara, nahiz eta etorkin horiek —kopuruz— jatorri iberiarrekoen beste izan. Baina adibide horiek ia ez dute batere zerikusirik Euskal Herriko gaur egungo egoerarekin. Lehenik, EBetan angloek eta Argentinan espainiarrek erreproduzio-tasa altua zuten, 4,5 seme-alaba andreko; hortaz, etnikoki nagusitasun argia izan zuten, kopuruz eta aldi orotan. Bigarrenik, herrialde biotan Estatuak sendo eta miramendu gabe eutsi dio etorri berriak —estatala eta herrikoia den hizkuntzan— kulturalizatu eta edukatzeari.

Euskal Herrian ez da juntatzen halako kondizio bat bera ere. Zeren arazoa ez da horrenbeste emigrazioarena, ezpada —gehienbat— euskaldunen erreproduzio-tasa oso apalarena, zeina eragin baitu sexu heterosexuaren —bizitza sortzeko baliagarri den bakarra— lintxamendu anker eta harrigarriak, betiere “genero-politika” deritzon ideologia suntsitzailean eta bere aplikazioetan oinarriturik; izan ere, helburutzat du euskal etnia atzentea, eta baita Europako gainontzeko herrienak ere. Herrialde haietan ziren politiken bitartez, gehiengodun etniatik eta horretako izan barrik ondo asimilatutakoetatik hartzen zuen jendea Estatuak, bai militar izateko, bai polizia izateko, bai funtzionario izateko, bai hezitzaile izateko, bai intelektual izateko, etab. Bestalde, emigrazioa pausatua, astiroago ailegatu zen, denboran zehar sosegatuago: eta ez urteko ehunka milako samaldatan —zeintzu kopuruz ere hain handiak, ezen ezin baitira asimilatu.

Europan bada beste diferentzia bat: Europan Batasuneko Estatu/Estatuen sistemak dagoeneko ez ditu defendatzen bere hizkuntzak, ezta aldi baten estatu-hizkuntzak izan zirenak ere, zeintzuei halako izatea ahulduz dihoakien, zein da gaztelaniari. Egoera are okerragoa da: estatu-hizkuntza izan ez eta suntsitze-politikak sufritu zituzten artean; esate baterako, euskeraren kasuan. Halako jokabidea aldatzeko asmorik ez da; izan ere. ordezkapen linguistikoa oinarri da “nazio europarra” eraikitzerakoan; eduki ere, aferak ezaugarri propioak dauzka.

Bada beste bateraezintasun bat, bertakoen eta etorkinen arteko lubaki kulturala, non ezinbestean dagoen lubaki linguistikoa. Argentinan, lubakia ez zen oztopo handia, zeren txikiak baitziren italiarren eta iberiarren kulturen arteko desberdintasunak, eta hori hala dager hizkuntzen arteko berdintasunetan ere. Baina, zertan da gaur egungo emigrazio transkontinental? Bateraezintasun kulturalak hain dira handiak, ezen etorkin

musulmanek, asiarrek, afrikar beltzek, etab. —euskerak ikasten dutenean ere— ez baitute lortzen eurenganatzeari: hizkuntzak berekin dituen kultura, mundu-ikuskerak, axiologia eta jakintzak, Humboldt-ek sotiltasunez adierazten dituenak. Esate baterako, euskal hizkuntzak baitan dituen pertsonaren —norbanako denez— autonomia eta libertate nozioak, ia ulertezinak zaizkio musulman bati, nahiz eta euskerarenganako aldekatutasun pertsonalaz jardun. Halaber, herri-burujabetasuna, bere burua artezten duen herria, buruzagirik gabea, zeren ordenamendu musulmanen oro antolatzen baita kalifaren eta kalifatuaren nozioen inguruan: buruzagi ahalguztiduna, Jaungoikoaren aurrean bakarrik dena erantzule, hau da, Nagusi, Gudalburu, Duce edo Führerra, Goi Goikoaren onespina duena. Eta hizkuntza ikasi baleza komunikaziorako zeinu- eta hots-sistema huts gisa; bada, hura desnaturalizatuz jardungo, baldin eta —barnea irauliz— ez baditu bazter uzten jatorriko usteak, eta euskaratik baitaratu nortasun euskalduna, baina hori ez da erraz eta arin egiten.

Zeren, esan dugunaren arabera, gizakiak gizaki dira, eta ez objektu edo gauzaki, nahiz eta horixe sinistu neonegrero europarrek, zeintzuek gurtu ere egiten baitute emigratzea. Etorrinak gizaki kulturalak dira, balio edo desbalioekiko identifikatzen direnak, eta horietan oinarriturik atontzen dituzte euren gogamenak, eta aurrera atera euren bizimoduak. Gaur egun, masiboa izanik, brastakoan gertatzen den emigrazioari dagokienez, euskaren gainean entzuten dudan orok baditu hiru akats. Lehena: uste dute hizkuntza dela: komunikazio-prozedura neutroa, kulturarik gabea eta emozioek eragiten ez diotena. Bigarrena: uste dute eze, eskola- eta hezkuntza-sistemak bermatzen duela hizkuntzaren iraupena, euskal gizarte zibil herrikoak egindako ekarpen bat edo besterekin. Hirugarrena: ez dute ulertzen gaur egun zeintzu diren emigratzearen ezaugarriak, ezta zein den Europaren gaur egungo egoera.

Hizkuntza, komunikazio-prozedura izatera murriztu ezkerok, andeatzeaz gain, sasi-ingelesarekiko egoera guztiz kaskarrean ipintzen da, zeren afera bada hizkuntza funtzional bat pragmatikoki hautatzea, norik ez du aukeratuko de facto Europar Batasunaren hizkuntza ofiziala, zeina baita, era berean, munduan zehar: ekonomiarena, teknologiarena, kultura-industriarena, masen turismorakoa, planeta osorako hizkuntza frankoa, Internetekoa, unibertsitate globalekoa, EBko herrialde guztien armadakoa, hau da, hizkuntza guztizkoa, erabatekoa, zeharria... Euskerak hautatzea, zehazki, ezaugarri hauekin hornitua: integrala, onesten eta estimatzen dena, eta emozioak eta gizakiaren osotasuna lantzeko baliagarria dena; bada, hautu hori egiteko behar-beharrezkoa da: eraldaketa axiologikoa aski sakona. Hau da, identifikatu egin behar da izaite-erak batekiko, gizatasun-erak batekiko, eta ez beste batzuren artean den beste espresio-lanabes batekiko.

Uste izatea eze euskerak eskolako egiteaz dena konpontzen dela, edo ia dena, ilusio suntsitzaileenetako bat da. Zeren, lehenik eta behin, euskerak irakasten duen eskola espainiarra da (heine askoz txikiagoan frantziarra), eta hori ia ez da kontuan izaten. Hegoaldean, euskal hezkuntza-sistema Ministerio de Educación delakoak zuzentzen du, hartarako baliatzen delarik Vascongadak eta Nafarroa dominatzeko tresnez. Hark pagatzen du hezkuntza, hertsapenez biltzen dituen zergekin; beraz, bere interesekin bat zuzendu eta antolatzen du, gaur egun estrategia jakin batekin, funtsean asmo honekin: *“Ezagutu ezazu euskerak, eta gero eta gutxiago erabili”*. Gau egun hori hala bada, bihar zer gertatuko ote?

Hezkuntza ama-hizkuntzaz gauzatu behar ei da. Hala da, baina ez da burutu behar estatuaren eskolan, eta gutxi balitz bezala estatu espainiarrenean, ezpada herri-estatuaren. Berrit diot: herriak zuzendutako eskolan. Komunala dena euskaldunen historia eta izaitearen parte da, eta estatala dena, ez; beraz, komunala denarekin goraka egiten du euskerak eta estatala denarekin beherantz., azken hori edozein eratak delarik ere¹¹. Beraz, ikus dezagun zein izango den ama-hizkuntzen egoera Euskal Herrian, 15 edo 20 urte barru. Orduan, ingeles mordoiloa izango da hizkuntza gorenekoa edo lehena. Bigarren lekuan gaztelera izango da, baina ez hurbileko lurralde eta kulturei dagokiena, etorkin latinoamerikarrena baino. Hirugarrena txinera edo

¹¹Horrek ez du esan gura guztiz eta erabat gaitzesten denik gaur egungo euskerazko eskola. Ez. Harik eta gaur egungo eskola, goitik eta Madriletik zuzendua, dagoen arte. Izan ere, honakoa beharko luke izan; behetik harakoa, gurasoen elkarrean bidez eta auzunetik hara zuzendua. Hala ere, gaur egun ez da txarrena euskerazkoa izan dadin, nahiz eta gai hori aztertu egin behar den, kasu konkretu bakoitzean. Alabaina, halako eskolatzea erremediatzat edo beste barik inportantetzat hartzea arriskutsua da oso. Zeren hizkuntzak herriek egiten baitituzte, jende arruntek, anonimoei, gainetik ezer barik. Areago euskeraren kasuan. Beraz, mobilizazio iraunkorrek soilik iraunarazi leio, bigarren mailako direlarik eskola eta unibertsitatea, zeintzuek arazoak sortzen dituzten; izan ere, hainbat eta hainbat zeharkako eragin dituzte. Hurrengo baten tratatzeko gaia litzateke hori. Nire ustez, soluzio estatalak ez du balio hizkuntzentzat, sekula eta inon ere ez. Soluzioa herriaren eskutik dator ala hizkuntza hil egingo da.

arabiera izango da. Laugarrena arabiera edo txinera. Bosgarren lekuan euskera edo Afrika beltzeko baten bat. Seigarrena Afrika beltzeko baten bat edo euskera.

Horrek esan gura du eze, —ama-hizkuntzetan— euskera bosgarren edo seigarren lekuan egongo litzatekeela, eta, hala ere, hezkuntzako hizkuntza izaten uzten badio botereak (estatu espainiarra/EB/inperialismoa alemaniarra); bada, baliabide murrizak izango lituzke. Eta baliteke abagune horretaz baliatzea boterea, euskeraren aurkako erasoaldi bati ekiteko, zoko edo bazterreko hizkuntza bihurtzekotan. Konpondua ote liteke hori mobilizazioekin? Agian, baina kontuan izan behar eze, ordurako etnia, hizkuntza eta kultura aldetik gutxiengo bat litzatekeela euskal biztanleria, beharbada biztanleria osoaren % 20-25a.; eta hori dela-eta Euskal Herrian den estatu-aparatuak (“euskaldunak” edo espainiarrak) bere zereginetarako bertako pertsona aski izango ez duenez; bada, aparatu hori —gehienik— emigrazioetiko norbanakoek osatuko lukete, eta horiek ez dira identifikatzen euskerarekin, ezta oro har euskaldun diren zerekin. Seguruenik, data horiek baino lehen ere, gaur egungo estatu-erakundea eta Europar Batasuna etorkinez (gehiengoaz) baliatuko dira, euskal gutxiengoaren aurka jotzeko; zertarako-eta euskerak ustez duen “pribilegiozko” egoera ezabatzeko. Ez da ahaztu behar: Europar Batasunak ezinbestekotzat jotzen duela beste OINARRI bat altxatu eta eratzea —etnia, kultura eta hizkuntzaren aldetik—. Eta Euskal Herria Europa da...

Zelan edo halan, aurreikuspenek erakusten dute eze, patronalak, Europar Batasunak, Estatu espainiarrak eta horren eragile neo-negrekoek galdegindako emigrazio masiboak ekarriko duela euskeraren amaiera. Eta ekarri ere, belaualdi bat barru, 25 urte. Hala izango da, baldin eta ez bada herritarren altxamendu masiboa, bertako natalitatearen aldekoa eta emigrazio masiboaren aurkakoa. Izan ere, emigrazio-era hori kapitalismo nazioz gairikoa ezarritakoa da, eta ez da besterik neo-esklaboak saldu eta erostea baino, XXI. mendeko kondizioetan.

Euskera zehaztean zera esan behar da: bere kulturari lotua dela, eta kultura euskerari. XXI. mendean, euskerak bere kabuz bizi behar du, eta ez arrotzak eta inorenak diren formula akulturalizatzailen arabera¹². Uste osoa izan behar da Euskal Herriarengan, hots, arbasoetiko kulturak badituela tresna egokiak, egungo egoerari aurre egiteko. Zeintzu dira euskal mundu-ikuskera, biziera eta kulturaren ezaugarri funtsezkoenak? Nire ustez, honako hauek: 1) autogobernua, burujabetasun herrikoi oso gisa, eta ez iraultza liberalek ezarritako estatu-nazioa, euskal historian arrotza dena, Humboldt-ek azpimarratzen duenez; izan ere, euskotasunaren berezko baitira batzarrea, eta horretan oinarriturik izan den gobernu-egitura, lau mailatan gauzatua eta oraindik ere ezaugarri batzuk agerian dituena, 2) pertsonaren eguneroko bizimodua zein gizarteko bizitza egituratzen dituen, libertatea aldeztu eta faboratzea, 3) komunitatearen printzipioa, zeina —orain dela hamarkada gutxi batzuk arte— funtsezkoa izan baita euskal historian eta errealtatean, harik eta Estatu espainiarrak bultzatutako kapitalismoak ia ezereza murriztu duen arte. 4) familia naturala, zabaladenez eta ez sexista, ondare propioarekin eta anaitasunez integratua auzuneko hartu-emanetan, elkarri

¹²Europar herrien eta, batez ere, herri iberiarren akulturazioa eragiketa bat da, Estatuak/Estatuek zuzendua, eta helburutzat duena haiek desagertu daitezten. Batzuetan hiper-kritizismo hondatzailearen eitea du, dena hankaz gora ipintzen duena, eta euskaldunen herriaren iragana eta oraina egunero kakazten duena; hartarako, aditzera emanez: komunitate oso gaiztoa denez, ondo merezita duela desagertu dadin. Esate baterako, botere autonomikoaren aparatuko zenbait erakunde egiten dutena, hau da, Euskadiko euskaldunak “matxista” direla azpimarratu, eta, etorkin musulmanak, ostera, ez. Soluzioa? Bada, hiper-kritikoen arabera: lege espainiarrak, polizia espainiarra eta judikatura espainiarra, hain justu ere emakume euskalduna gizonetako euskaldunetik “babeatu” dezaten. Irme eta senda salatu behar da hori, izenak eta abizenak aipatuaz, eta M. Carmen Basterretxearen **“Euskal Herria, Kultura matrilineala”** liburuan oinarriturik. Alkohol, tabako eta zenbait droga gehien kontsumitzen diren lekua ei da Euskal Herria, eta horrek esplika dezake aurrerantz doan akulturazioa. Zehazki, euskaldunen herriari (zati bati) zelan eta kendu egin zaizkion bere balore arbasoetarioak, erakunde naturalak, bizimodua egiteko erak eta elkarbizitza egiteko egiturak; bada, galbidea da, eta alkoholera eta drogetara jotzen du; izan ere, bizitzarekiko desesperazioak daroa bere burua hondatzera halako jokabideekin. Euskal Herriak berriro bere buruaz bat egiten ez duen arte, euskal kultura osobetea —XXI. mendeko kondizioei egokitu— eraikiaz, arazo horrek ez du izango konponbiderik. Justo Arriola-ren **“A los pies del caballo. Narcotráfico, heroína y contrainsurgencia en Euskal Herria”** liburuan irakur daiteke: iragan mendeko 70ko azken urteetatik hara estatu espainiarreko polizia-zerbitzuek nola erabili zuten politikoki droga hori. Hori hala da, eta liburua ikerlan ona da, baina ez du arakatzen sakoneko arazoa, hau da, zein den arazoaren eragile nagusia, zeren Guardia Zibilaren eta poliziaren jardura prozedura baino ez zen izan, zelan egin. Sakon-sakoneko eragilea hauxe da: euskaldunen herrian, kulturak, elkarbizitzako moduek eta izaiteko erek lurra jo izana, iragan mendeko 60ko urteetan. Eratzun egoki ez dira kontsigna politiko hutsak, zeren ez ohi baitute izan ezelako analisi funtsaturik, eta are gutxiago euskaltasunezko funts konkretua ber-eraikitze erantzunik. Izan ere, kontsigna politikoek, berez, ezkatu baino ez dute egiten akulturazioa, zehazki, haiek aldarrikatzen dituzten pertsonena. Horiek behin eta berriro darabiltzate kanpotiko ereduak, bazter utziaz euskotasunezkoa dena, zeina ez baitute ezagutzen ezta ulertzen, zeren jarraitzen diote politika internazionalista bati, zeina baita kosmopolitismo burges hutsa, eta bai zaharkitua eta iraungia ere. Euskal Herriak bere baitan du dagokion ereduak, eta beste eredu batzuk proposatzea ez da besterik akulturazioaren arazoa larriagotzea baizen.

Laguntzekoa eta lankidetzako lan librekoa, zein da auzolana, edo atxolorra-antolakuntzaren bidez amen eta familien arteko elkar-laguntza gauzatzen duena, zeina ezinbestekoa baita euskaldunen suntsiketa etnikoa baztertzeko, 5) jakintza herrikoa, hots, norbanakoaren, taldeen eta herri osoaren pentsamen-gaitasunaren ondorio dena, batez ere ahozko kulturaren espresatua, librea, ez dena eskolako edo estatala eta botereak zuzentzen ez duena, 6) asmamen teknikoaren eta teknologiaren erabilera autonomoa aldezte, pertsonen onerako eta libertaterako baliabide denez eta ez deshumanizatorako tresna, 7) oro har herritarrek osatutako armatze-zerbitzuetan oinarriturik zaintzea herriaren burujabetasuna; hartarako, batzarreak zuzendutako miliziak erabiliaz eta ez polizia profesionala, miliziotik hautatuak izanik txandaka dihardutelarik, 8) burujabetasun ekonomikoa, euskal ekonomia bat eratzearen ondorioa dena, betiere enpresa transnazional kapitalistetatik aparte, zeintzu baitira euskeraren aurka gaitzuen egiteko tresnak, izan ere, egungo ekonomia transnazionalak ingeles mordoiloan dihardu, 9) euskal jaiaren nozioa, zeina guztiz kontrakoa baita libertimendurako industria mundial ingelesezkoak proposatzen duenarekiko; "libertituaz" gizakia hondatzeko tresna besterik ez da-eta. Euskal kulturaren ezaugarri gehiago ere aipatu daitezke, gaur egun ezinbestekoak direnak Europa atera dadin bizi duen kolapso eta desintegrazio egoeratik; oraingoz aipatutakoetan itxiko ditugu

Baliteke baten batek esatea eze, iraganeko gauzez, gaur egun ia desagertuak direnez dihardudala, eta gauzok ez dutela lekurik XXI. mendeko gizarteetan. Baina halako esatei honako argudio honekin erantzun leie: egungo gizarteak dira totalitarioak, uniformatzaileak, gizatasunaz gabetzen dutenak, intoleranetak, esplotatzaileak, libertizidak, norbanakoaren tasunak ukatzen dituztenak, guztiz zentralizatuak, ekonomian eraginkortasun ia bape ez dutenak... eta iraganeko artezpide-nozio eta -lanabes oinarritzkoetako hainbatek libra gaitzaketela zingiratik, non sartuta dauden egungo gizarte oso dekadenteak. Baina, horretarako honako hauek behar dira: 1) euskotasunaren muina eta funtsa izan dena gaurkotzea XXI. menderako, 2) egin beharrekoa, iraultza herriko nazional baten bidez egitea. Hori hala ala euskaldunen herriaren akabua.

Mundu mailako genozidio kultural eta linguistikoaren aroan bizi gara. Zeren gaur egin diren 6.500 hizkuntzetarik zenbatek iraungo ote XXI. mendea bukatu artiño? Bada, seguruenik dozena batetik gora, ez; baldin eta ez badugu jarduten kemenez, kurariak eta burutsu. Jared Diamond-ek "*holocausto lingüístico*"¹³, deritzonerantz garamatzate, gizadiaren historiako txar-gaitztoenera, zeinarekin batera doazen holokausto kulturala, holokausto etnikoa eta gizatasunezko ororen holokaustoa.

PROPOSAMENAK

Natalitatea azkurtu eta gorabidean ipintzea da gakoa, andrazko 3 ume, baina asko liteke emakume 2 ume; guztiarekin ere, andrazko bakoitzaren burujabetasuna osoro errespetatzean oinarritutik; izan ere, libertate bera behar dute ama izateko zein ez izateko, gaur egun jazotzen denaren kontrara, zeren botere-sistemak hertsatzen egiten baititu amatasuna ukatzera, osoki edo zati baten.

Horrexetan datza guztiaren gakoa. "Erótica creadora de vida. Propuestas ante la crisis demográfica" nire libruan, agertzen dira Europako natalitate-kolapsoaren 14 eragile, zeintzu euskal kasuari aplikatu ahal zaizkion. Eginkizuna litzateke: banan banan eta denak batera zuzentzea. Gobernuen, Europar Batasunaren eta patronalen proposamen eta egitasmoetan ez da ezer proposatzen edo ia ezebe, gai horietaz; zeren instituzio horiek "konponbide" eskusibo eta bakartzat baitute emigratioaren emendatze esponenziala. Herri europarrak suntsitu nahi dituzte eta horrexetan dihardute, zertarako-eta lan eta fiskalitate arloetarako langile masa berri bat —askoz ere otzanagoa eta merkeagoa— lortzeko, eta helburu estrategiko horri ekiten diote kemen eta ebatzi handiz; eta horretaz gain, egungo egoera salatzen duen oro txikitu egiten dute, beste barik edo, bestela, kaleetan euren agintepeko jendilajea erabiliaz. Mobilizazio herriko eskerga batek bakarrik geldiarazi lezake amildegiranzko martxa hori.

Aipatu hamalau eragileotarik erabakigarriena, nire ustez hauze da: erotismo heterosexuala pertsegitu, deabrutu eta debekatzea. Naturak, sexuaren bidez, egingarri bihurtzen du izaki biziak erreproduzitzea, iraun ahal izate; baina, mendebaldeko herrialdeetan, sexua izugarri manipulatu da, nihilismoaren bidez manipulatu ere, betiere eragingarritasun handiz eta ingeniariaritzaren sozialeko eragiketa konplexuak erabiliaz. Guzti horren ondorioz natalitateak lurra jo du. Xede azken burukoa da jaiotza-kopurua murriztea. Txinan, erregimen

¹³"El tercer chimpancé" delakoan autoreak kontatzen du: Tasmanian, XIX. mendean, Estatu Britainiarrek burututako "bertako biztanleriaren suntsiketa"; bada, egiten duen deskribapena gaur egun Europan gertatzen denaren antzekoa da. Diamond-ek dienez, "genozidioak, giza-talde bat erailteza esan nahi du", Hala ere, demografia kontuetan oker dabil, zeren topiko instituzionalak darabiltza.

marxista-faxistak ere hala egin zuen, hain zuzen ere emakumeari beste barik galaraziaz haur bat baino gehiago izatea; hartarako, obeditzen ez zutenei isunak, espetxeratzeak eta kaleratzeak ezarriaz. Gaur egun, Indian goraka doa uteroa kentzearena, eta andrazko gero eta gehiagok horixe dagite kapitalistek kontratatu ditzaten amorearren; hala bermatu egiten ei baitute andrazkoak ez direla ama izango eta produkzio-lanari guztiz emanak izango direla; guztiarekin ere, jokabide hori ezkutatu egiten da Estatuak herrialdeko datu-demografikoak oso faltsutuaz. Hego Korean, ugazaben elkarteak kaleratu egiten ditu haurdun direla jakin orduko. Japonian, sexu heterosexuala ia desagertu egiten da, salbu eta era endekatuetan: pornografia, masturbazioa eta prostituzioa.

Mendebaldean, “genero-ideologia” izan da natalitatea hondatzekotan erabilitako tresna nagusia, zeinak ukatu egiten baitu libertatea (maitasunerakoa, erotikoa eta sexuala); hartarako, lazki erasoaz emetasunari eta gizontasunari; andrak eta gizonak irendu eta ezindu egiten dira. Bestalde, gogor egiten dio erreprodukziorako erotismo heterosexulari, betiere “emakumearen askatasuna” lortzeko aitzakia ustelaren gerizan. “Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Legea” aplikatzeak beldurra zabaldu du bazterretan; izan ere, aspaldi jo zen lege hori maitasunaren eta sexuaren aurkakotzat, eta horrez gain, ez du balio emakumeen aurkako kriminalitateari aurre hartzeko, alderantziz; baina oso eragingarria da sexu heterosexuala apalarazi eta kolapsatzeko, eta ondorioz natalitatea. “Genero-ideologia” eta Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Legea izan dira prozedura nagusi: borondatez kontra, antzutzeko estatu espainiarren mendeko herriak. Hori, gaur egun, genozidioa besterik ez da.

Guzti horrek sakonki eragin die gizarte europarrei, partikulariki gizarte iberiarrei, zeren “hark” izan baitu —gerizan— funtzionarioek edo neo-funtzionarioek osatutako aparatu eskerga, zeina ehunka milioiz hornitua dagoen, hain justu ere patronal handiak, Europar Batasuneko instituzioek eta Espainiako estatu-instituzioek¹⁴ emandakoak. Egoera hori delarik, arretaz erreparatu behar zaie natalitatearen beherakadez “erakundeek” urtarril bakoitzean —aurreko urtarrilkoaz— emandako zehaztapenei, ukitu “gehiegi” egingo ez dietelakoan. Datuok agerrarazi ohi digute zelako hondamendi tamalgarrian garen. Datorren urtarrilean ere, halako datuek seguruenik ez diete eragingo gogoetarik sexualitate librearen errepresoreei, ezta hurrengo urtarrilean... Noizbait baina, bertokoen natalitatea emakumeko 0,1/0,0 haur izatetik hurbil dagoela —nire ustez 7 urte barru—, eta Hirugarren Munduan eskulana harrapatzea gero eta zailagoa dela; orduan bai, baliteke herritarren erreakziorik agertzea esplikazioak eskatzeko. Baita erantzukizunak eta aldaketa funtsezkoak eskatzeko ere.

Soluzioa hauxe liteke: natalitatea hondatzen duten 14 eragileak —neure liburuan aipatzen ditudanak— zuzenduz joatea; batez ere, garrantzitsuena, gorago seinatua. Egoera txarra eta larria bada ere, oraindik badu soluziorik, eta izatekotan, beharko du izan hurrengo bost urteen barruan. Geroago ez da izango posible.

Oraingoz, emigrazioaren gainean bi proposamen bakarrik egiten ditut. Bat: euskal gizarte osoan egin dadila debate libre eta anitza, non bertan izan daitezkeen proposamen guztiak eta parte guztiak, etorkinak barru direla; eta ez da onartuko GKE-ek eta erakunde progresistek etorkinak errepresentatzea; izan ere, onartezina da halako antolakundeek etorkinen izenean hitz egitea.

Debatea egin ostean, aztertu egin beharko da emigrazioak ze kalte ikaragarriak eragiten dituen etorkinen jatorrizko herrialdeetan, batez ere Afrikan; izan ere, neo-negreroek ez dute nahi herritarrak jakitun izan daitezen gai horretaz¹⁵. Bi: guztiaren buruan erreferendum bat egin dadila emigrazioaz, Euskal Herrian; izan

¹⁴Une batez bakarrik ere ahaztu ezkerro honetaz: erreprodukziorako, sexurako eta maitasunerako askatasunaren aurkako jarduera orenen jatorrian direla, bai Henry Kissinger-en “**Implicaciones del crecimiento poblacional mundial**” dokumentua, 1984koa, eta bai Rockefeller-tarren Familia Planifikaziorako Institutu Federalaren esku-hartze tristeak ere; bada, nork bere buruari galarazi egiten dio ulertu ahal izatea zer jazotzen den. Orain dela berrogei urte zentzua eduki zezakeenak, honezkero, ez du halakorik, zeren populazioa eskasa izateak gizateria hondamendira eramango du, hamarkada gutxiren buruan. Asuntu horiek zuzentzen dituzten bururako fanatikoek, oraindik ere, duela mende erdiko egoerari erantzuteko politikak aplikatzen dituzte., nahiz eta egoera guztiz diferentea izan. Gaur egun, zoro gaizto arriskutsuek —oso boteretsu direnek— zuzentzen dute gizateria. Eta geldiarazi, eta euren lekutik erasten ez badira, dagoen bide bakarretik, hau da, iraultzarenetik, gureak egin du.

¹⁵*Afrikarrak Afrikarako dira eta ez Europarako*” goiburua defendatu izan dut, horretaz zenbait aldiz idatzi dut neure blogean, eta horrekin apurtu egiten dut emigrazio masiboaren aldekoen ildo neokolonialista; izan ere, horiek, azken baten, europar inperialismo berria dira. Hori dela-eta, Afrikako herrialdeetan, hainbat eta hainbat elkarte eta pertsona ari dira lanean euren gazteriek Europa emigratu ez dezaten. Horretaz Europako herritarrak informatzea ezinbestekoa da; baina, horretarako izkin egin behar zaio neo-negreroek ezartzen duten zentsurari, oso bortxazkoa denari. Halaber, horrexegatik berorregatik berba egiteko aukera eskaini behar zaie etorkinei, European ustez euren “ordezkari” direnei kenduaz, haragi salerosketan diharduten lotsagabe hutsak baitira

ere, horrela euskal herritarren burujabetasuna gailenduko litzateke, euren arbasoen lurraldean nor finkatu daitekeen edo ez daitekeen zehazteari dagokionez. Arazo hori euskal herriak ebatzi behar du, ezen ez Bizkaiko patronalak. Honela egingo litzateke: se hilabete debate librerako, eta gero erreferendum loteslea.

Hirugarren kuestioa da Europar Batasuna. Bertan ez da lekurik herrientzako, estaduentzako bakarrik: horixe da-eta abian den genozidio europarraren zuztarra. Europar Batasuna Europaren hilobia da, zentzu askotan.

Eta laugarrena da euskal kultura herrikoiairen gainean gogoeta egitea eta jardutea, batez ere ahozko tradizioari dagokionez. Bere lekua ez da museo etnografikoa, ezpada egiazko eta erreal den bizitza, kalea; baina hori lortzeko lan egin beharko da, gogotik egin ere, hain zuzen ere XXI. mendeko errealitateei egokitu dakien. Behin hori gauzatu ezker, erabakigarria izango da euskotasunezkoa berpiztu dadin, Europaren berregite integralaren indar nagusi gisa; egoera horrek errepikatu egingo du V. mendeko iraultza bagaudarekin gertatu zena,

2019ko azaroa

Félix Rodrigo Mora
